

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ALDEZLEAREN URTEKO TXOSTENA

2023ko abenduaren 15a - 2024ko abenduaren 14a

Iñigo Urrutia Libarona

aldezleā

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. 2024ko aztergaiak	6
1.1. Bulegora jo duen pertsona kopurua eta aztergai kopurua.....	6
1.2. Bulegora jo duten pertsonen generoa.....	7
1.3. Bulegora jo duten pertsonen erabilitako hizkuntza.....	9
1.4. Aztergaiak kolektiboen arabera: ikasleak, IRI, TEKAZEL eta "Beste batzuk"	10
1.5. Aztergai kopurua campusen arabera.....	12
1.6. Aztergai kopurua ikastegien eta zerbitzuen arabera.....	13
1.7. Aztergai motak.....	15
1.7.1. Kolektiboek planteatutako aztergai motak.....	16
1.7.2. Emakumeek eta gizonek planteatutako aztergai motak.....	18
1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak.....	20
1.9. Bulegoaren esku hartzea.....	28
1.9.1. Baietsitako kexen gaia.....	29
1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak.....	32
1.10. Jasotako erantzuna.....	33
1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen laguntza.....	33
2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk	34
2.1. Elkarlana G9+ taldeko defendatzaileekin.....	34
2.2. Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen XXVI. Topaketa.....	34
2.3. CEDUren XVII. Ohiko Batzar Nagusia	35
2.4. Elkarlana CEDUren defendatzaileekin, foroetan parte hartuz.....	35
2.5. UPV/EHUren Gobernu Kontseiluetan parte hartzea.....	35
3. Urteko txosten ekonomikoa	36
4. Ondorioak eta gomendioak	37
I. ERANSKINA: 2024ko aztergaien zerrenda	50

Sarrera

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuen 77. artikulua betetze aldera, Aldezlearen zerbitzuaren urteko jardueren txostena aurkezten diogu Unibertsitate Klaustroari. Txostena dagokio 2023ko abenduaren 15etik 2024ko abenduaren 14ra bitarteko aldiari.

Aldezlearen urteko txostena aurkeztea aukera on bat da gogoeta batzuk partekatzeko unibertsitateko kideekin, UPV/EHU osatzen duten pertsonen eskubide, betebeharrak eta askatasunen inguruan bulegoan landu ditugun gaien harira. Gustatuko litzaiguke txosten honen bidez unibertsitateko kide guztiek gogoeta egitea gure erakundearen funtzionamenduaren gai zehatz batzuei buruz, espiritu kritikoarekin, baina zentzu positiboan, gure lana hobetzeari begira betiere, era horretan hobeto aurre egiteko gure unibertsitateak dituen desafioei. Alde horretatik, gustatuko litzaiguke ere txosten hau behatoki moduko bat izatea, partziala bada ere, detektatzeko unibertsitateko kideak kezkatzen dituzten gaiak eta arazoak.

Edonola ere, beti diogun moduan, txosten honetan jasotako eskubideen eta askatasunen egoerari buruzko ikuspegiak ez digu ematen egoera horren argazki zehatz eta osoa. Aldezlearen bulegora heltzen diren kasuak zehatzak eta bakanak izan ohi dira, eta azken aukera gisa planteatzen zaizkigu ia beti. Hortaz, gehiegizkoa izan daiteke gure ikuspegia estrapolatzea UPV/EHUren funtzionamendu osora, baldin eta zuzentzen ez bada beste datu eta erreferentzia batzuekin.

2024a aldaketa urtea izan da UPV/EHU. Hauteskundeak izan ditugu eta Gobernu Talde berri bat eratu da, datozen sei urteetarako. Txosten honetan aipatutako jarduerak dagozkio aurreko gobernu taldearen lanari, eta lerro hauek baliatu nahi ditugu eskerrak emateko talde horri UPV/EHUren Aldezlearen erakundearekin izan duen prestutasunagatik eta begiruneagatik. Eskerrak eman nahi dizkiot, beraz, ardurak utzi dituen errektore taldeari eta, bereziki, talde horren buru izan den errektore andreari, eskatu dudan guztietan harrera egin didatelako, kasu gehienetan gai desatseginak aztertu behar izan baditugu ere. Era berean, eman diguten laguntza eskertu nahi diet ere ikastegietako zuzendari eta dekanok guztiei, sailetako zuzendariari, gerentziako taldeari, arlo nahiz ataletako arduradun guztiei eta, jakina, Ikasleen Kontseiluari. Denek begirunez jokatu dute aldezlearen independentziarekin, guztiz beharrezkoa dena gure lana ondo egiteko. Eskerrik asko Aldezlearen erakundearen lana errespetatzeagatik.

Bestetik, nire zorionik beroena eman nahi nioke gobernu talde berriari, eta adierazi nahi diot nire esku dagoen guztia egiteko prest edukiko nauela hemendik aurrera, dagokidan posizio instituzionaletik laguntzeko. Jakin badakit ez dela erraza UPV/EHU bezalako erakunde handi baten buru izatea, ezta beti esker oneko lana ere. Nolanahi ere, errektore berria eta haren taldea animatu nahi nituzke adorez eta anbizioz jokatzera unibertsitateko kideek haiengan utzi dituzten arduretan, pentsatuz, gainera, UPV/EHU osatzen dugun pertsonak garela erakunde honen gauzarik baliotsuena. Euskal gizarteari zerbitzu publiko garrantzitsu bat emateko eginkizuna duen erakundea: hala nola goi

mailako hezkuntza eta ikerketa. Badakit errektore berria eta haren taldeko gainerako kideak bat datozela aldezearen helburuekin, unibertsitate publikoaren xedeari eta unibertsitate bikaintasun eta kalitateari dagokienez. Unibertsitatearen kalitatea eskuarki neurtu ohi da unibertsitateak Europako edo munduko rankinetan duen posizioaren bidez, ikerketa proiektu edo tesi kopuruaren bidez, ikerketa proiektuetatik eta kontratuetatik lortutako zenbatekoen bidez, irakasleen kalitate egiaztatuaren bidez, ikerketa argitalpenen inaktuaren bidez... Alabaina, unibertsitate baten kalitatea zehaztean, eta are gehiago gurea bezalako unibertsitate publiko batean, kontuan izan behar da ere pertsona zaurgarriei eta unibertsitate ikasketak egiteko zailtasun gehien dituztenei ematen zaien tratua. Alde horretatik, kalitate irizpidetzat eta UPV/EHUk gizarteari ematen dion zerbitzuaren handitasunaren erakusgarritzat hartu behar ditugu ere zailtasun handiagoak dituzten pertsonak goi-mailako hezkuntzara eta ikerketara heltzeko gizartearen konpromisoa eta erakundea osatzen dugun pertsona guztien eskubideen bermea (ikasleak, irakasle-ikertzaileak eta TEKAZEL). Errektore talde berria animatu nahi nuke bide horretan aurrera egitera, eta jakin badakit asko garela horrekin bat gatozenak.

Ugari dira UPV/EHUk datozen urteei begira dituen desafioak, bai eta Unibertsitate Klaustroak ere, zeinaren egitekoa biziberritu beharko litzatekeen unibertsitatearen gobernantzari begira. Besteak beste, Klaustroari dagokio euskal unibertsitate publikoaren Estatutu berriak idaztea, esparru juridiko berrira egokituta. Estatutu berriek lagundu beharko lukete euskal gizartean errotutako unibertsitate publikoa sendotzen, konprometitua kolektibo ahulenen eskubideekin, ikuspegi kultural desberdinen arteko eztabaidarako askatasun gune gisa, hierarkiarik gabe, garapen pertsonala eta kolektiboa bultzatuz, giza eta finantza baliabide egokiekin, eta gizarteari kontuak emanez, zintzo eta gardentasunez.

Askok izan dira 2024an gure bulegora etorri diren pertsonak, kezkatzen zituzten gaiak azaltzera. Nahiz eta ahalegindu garen, badakit beti ez garela gai izan erantzuteko bulegora etorri diren pertsonen espektatiba eta interesei. Eskerrak eman nahi dizkiet pertsona horiei, gudan jarri duten konfiantzagatik, eta barkamena eskatu, huts egin badiegu haien itzaropenei. Aldezearen funtzio instituzionala da unibertsitatearen interes orokorrari begiratzea eta planteatzen zaizkion egoerak ulertzen saiatzea, ñabardura guztiekin, kasuan-kasuan bidezkoa den posizioa aldezteko. Gauza batek gogobetetzen nau: alegia, gure unibertsitateko pertsona askori beren eskubideen eta interesen defentsan lagundu izanak.

2024ko jardueraren ondorioak azaltzen hasi aurretik, gogora ekarri nahi dut, txostena hobeto ulertze aldera, hiru motatakoak direla aldezeak erabiltzen dituen prozedurak:

- 1) Kontsultak: kontsultak egiten dizkiguten pertsonak jakin nahi izaten dute zehazki zer eskubide dituzten edo nola babes ditzaketen, eta zein den unibertsitateko organo eta zerbitzuen jardun eremua. Gure zeregina aholkatzea da.
- 2) Kexak eta erreklamazioak: UPV/EHUko kideek edo UPV/EHUkoak izan gabe interes legitimoa duten pertsonak planteatzen dituzte, uste dutelako urratu egin direla

beren eskubide edo interes legítimoak, administrazioaren jardueragatik edo jarduera ezagatik, edo UPV/EHUko organo, zerbitzu, agintari edo irakasleek hartutako erabakiengatik. Kasu horietan, zerbitzu honek egin dezake orientazio edo jarraipen lan bat, non interesdunari adierazten zaion zer urrats egin behar dituen bere kasua konpontzeko, baldin eta aldezeleak esku hartzea debekatuta badu (adibidez, prozedurazko ohiko bideak agortu ez direlako); edo, bestela, gomendio bat helaraz diezaioke unibertsitate erakunde eskudunari, dagokion azterketa kontrastatua egin ondoren. Gomendio horren xedea izan daiteke gogoraraztea arau jakin bat bete behar dela, edo iradokizun bat ere izan daiteke kasuari aplikatutako arauen bat interpretatzeko moduari buruz; halaber, arau bat aldatzea proposa daiteke, edo arau edo akordio berri bat onartzea, ematen dugun zerbitzu publikoa hobetzeari begira; azkenik, proportzionaltasun irizpen bat ere izan daiteke, babestea merezi duen eskubide edo interesen bat bermatzeari begira.

- 3) Bitartekaritza/kontziliazio prozesuak: unibertsitateko bi kideren edo gehiagoren arteko gatazketan planteatzen dira. Konponbidea bilatzeko, elkarriketaren oinarritutako akordioa bilatzen da inplikaturako pertsonen artean, eta aldezeleak bitartekari lanak egiten ditu bi aldeetako artean, akordio egoki bat bilatzeko.

Aipatu berri diren hiru zeregin motez gainera, "gertakizunen kontaketa" ere jasotzen dira bulegoan, eta, horien bidez, interesdunek egoera edo gertakizun baten berri ematen diote aldezeleari, inolako jarduerarik hasteko eskatu gabe, edo ez jarduteko eskatzen.

Rexak eta erreklamazioak aztertzean ikusten badugu unibertsitateak ez duela zuzen jokatu, gomendio edo iradokizun bat egiten diogu dagokion unibertsitate zerbitzuari, bere jokabidea aldatzeko eskatuz. Kasu batzuetan, ikusten dugu zerbitzuak legearen arabera jokatu duela, nahiz eta gure iritzian egokia litzatekeen beste modu batean jokatzeko, eskubideak hobeto zaintzeari edo administrazio onaren printzipioari begira. Kasu horretan, araua beste era batera interpretatzea gomendatzen dugu, egokiagoa eskubideen eraginkortasunerako eta zabalkunderako.

Txosten honen edukia aurrekoen oinarritzko egitura bera du, gaien eta haien ezaugarrien bilakaera modu ebolutibo batean aztertu ahal izateko. Hasteko, 2024. urtean bulegora iritsi diren kasuak deskribatuko ditugu, aurreko urteetakoekin alderatuta, horren gaineko zenbait ohartarazpen egiteko. Ondoren, bulego honek 2024an eginiko beste lan batzuk aipatuko dira, hala ohikoak nola beste jardura batzuei loturikoak, eta urteko txosten ekonomikoa aurkeztuko da. Azkenik, txostena amaitzeko, hainbat gogoeta orokor egingo dira. Halaber, eranskinean, 2024an aztertutako gai guztien zerrenda ikus daiteke.

Amaitzeko, nire eskerrik zintzoena adierazi nahi diet Aldezelearen zerbitzuko lankide Ana Saralegiri eta Maite Estévezi, haien pazientzia, eraginkortasun eta erakundearekiko konpromisoagatik. Haiek gabe, ezinezkoa litzateke orri hauetan aipatuko diren lan asko eta asko egitea.

1. 2024ko aztergaiak

Atal honetan aipatuko ditugu bulegoak 2024an izan dituen aztergaiak eta haien ezaugarri nagusiak. Urtean zehar landutako gai guztien zerrenda ikusteko, ikus [1. ERANSKINA](#).


1.1. Bulegora jo duen pertsona kopurua eta aztergai kopurua

2024an, 156 pertsonak jo dute Aldezlearen bulegora eta 163 aztergai planteatu dituzte (kontsultak, kexak eta bitartekaritza eskaerak). UPV/EHUren Aldezlearen zerbitzua martxan jarri zenetik, 1.599 pertsona igaro dira bulegotik, eta 1.855 kasu eta 113 kontakizun planteatu dituzte.

1. grafikoa ikus daiteke bulegora jo duten pertsonen eta aztergaien kopuruen bilakaera, UPV/EHUren Aldezlearen erakundearen azken 10 urteko ibilbidean. 2024an, aztergai gehiago erregistratu dira pertsonak baino, pertsona batzuek gai bat baino gehiago planteatu dituztelako, eta oso gutxi izan dira pertsona batek baino gehiagok aurkeztutako aztergaiak (3 bakarrik).





Hurrengo ataletan erreferentziatzat hartuko ditugu aipatutako 163 aztergaiak. Gainera, urtean zehar, 8 lagunek beste 8 aztergai aurkeztu dituzte bulegoan. Pertsona horiek ez zuten nahi une horretan gure erakundeak zuzenean esku hartzea; aldiz, gertakizun batzuen berri eman nahi zuten, garrantzitsuak unibertsitatearentzat, haien ustez aldezleak jakin beharrekoak. 2. grafikoa ikus daitezke azken urteetan aztertutako "gertakizunen kontakizunak".



1.2. Bulegora jo duten pertsonen generoa



Aldezlearengana jo duten 156 pertsonen artetik, 86 emakumeak ziren eta 70 gizonak. Emakumeek planteatu dituzte 90 aztergai; gizonek, 73. Ikus 3. grafikoan Aldezlearen zerbitzuaren azken hamar urteei dagozkien maiztasunak; 4. grafikoan, ehunekoak.



4. grafikoa ikus daitekeenez, urtetik urtera handiagoa da bulegora jotzen duten emakumeen kopurua gizonena baino, eta bat dator hori emakumeek eta gizonak UPV/EHU-n duten proportzioarekin. Hala ere, 2024an txikitu egin da genero bakoitzaren aztergaiaren ehunekoen arteko aldea.

1.3. Bulegora jo duten pertsonen erabilitako hizkuntza

163 aztergaietatik, 62 euskaraz aurkeztu dira; 101, gaztelaniaz.




2024an tramitatutako kasuen % 38 euskaraz planteatu eta ebatzi dira; hots, aurreko urteetako datua eta aztertutako aldiari dagokion batezbestekoa gainditzen dituen ehunekoa. 2015etik, aldezlearengana jo duten pertsonen % 29 euskaraz aritu dira.


1.4. Aztergaiak kolektiboen arabera: ikasleak, IRI, TEKAZEL eta "Beste batzuk"

2024an, ikasleek 60 aztergai planteatu dituzte, irakasle-ikertzaileek 69, TEKAZELeko langileek 21 eta unibertsitatekoak ez diren pertsonen 13 ("Beste batzuk" kategoria). Beraz, gora egin du unibertsitateko kolektibo guztietatik jasotako kasuen kopuruak, eta behera egin dute nabarmen "Beste batzuk" kategoriaren aztergaiak.


7. grafikoak erakusten du talde bakoitzak azken hamar urteetan aurkeztutako aztergaien bilakaera. 2024an erregistratu da irakasle-ikertzaileek eta TEKAZELeko langileek urte hauetan planteatutako aztergaien zifrarik handiena.



8. grafikoan ikus daitezke unibertsitateko kideen (irakasle-ikertzaileak, TEKAZEL eta ikasleak) datuak, ehunekotan. Irakasle-ikertzaileen kasuen pixkanakako igoeraren ondorioz, 2021z geroztik hurbilduz joan dira urtetik urtera irakasleek eta ikasleek planteatutako kasuak, eta 2024an, lehen aldiz, gehiago izan dira irakasle-ikertzaileenak (% 46) ikasleenak baino (% 40). Hasieratik ikasleek gehiago jo izan badute ere gure bulegora, gaur egun alderantzizkoa gertatzen da, eta gehiago dira aldezearengana jotzen duten irakasle-ikertzaileak.





2024an ikasleek planteatutako 60 aztergaien artetik, 46 izan dira graduiko ikasleenak, 13 graduondokoenak eta 1 Esperientzia Geletako ikasleenak (9. grafikoa).



1.5. Aztergaiak campusen arabera

Unibertsitateko kideengandik iritsi zaizkigun 150 aztergaietatik, 43 iritsi dira Gipuzkoako Campusetik, 79 Bizkaitik eta 28 Arabatik. Beraz, gora egin du aztergai kopuruak campus guztietan. Esan bezala, 13 aztergai gehigarriak iritsi dira UPV/EHUtik kanpoko pertsonengandik. 11. grafikoak ehunekotan ematen dizkigu datuak.



1.6. Aztergai kopurua, ikastegien eta zerbitzuen arabera

1. taulan ikus daiteke aldezlearengana laguntza eske jo duten pertsonen ikastegien eta zerbitzuen zerrenda. Taulak kontuan hartzen ditu aztergai mota guztiak: kexak (baietsiak izan ala ez), kontsultak eta bitartekaritza eskaerak.

Komeni da erlatibizatzea taulan ageri diren datuak, soil-soilik balio dutelako jakiteko nondik datozen aztergaiak, ez beste ondoriorik ateratzeko hortik kanpo. Aztergai gehienak ikastegi handienetatik datoz, eta kontuan izan behar da ere pertsona askori eragin diezaieketen gaiak izan daitezkeela. Beraz, ikastegi edo zerbitzu baten estatistikak edo datuak asko alda daitezke urte batetik bestera, faktore ugari eraginda.

1. taula. Aztergaiak planteatu dituzten pertsonen ikastegiak eta zerbitzuak


Ikastegiak eta zerbitzuak	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Arabako Biblioteka	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Argitalpen Zerbitzua	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Arkitektura GET	2	-	-	6	3	1	2	1	2	-
Arte Ederren Fakultatea	4	2	1	2	5	4	4	9	6	7
Zientzia eta Teknologia F.	7	4	7	7	8	8	11	7	4	11
Berdintasunaren arloko Zuzendaritza	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Joxe Mari Korta eraikina	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Doktorego E.*	5	6	4	2	10	1	3	4	2	-
Bilboko Ingeniaritza E.	12	6	11	14	6	10	11	19	15	11
Bilboko Hezkuntza F.	4	7	7	4	6	2	5	1	6	7
Bilboko Merkataritza Ganberako UE	2	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Bizkaiko Biblioteka	-	-	-	-	2	-	-	-	-	1
Campuseko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Campuseko Gerenteordetza	-	-	-	2	3	3	-	1	1	-
Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua	-	1	1	-	-	-	-	-	-	-
Ekonomia eta Enpresa F.	3	5	13	11	10	11	7	5	17	13
Enplegu Gunea	-	-	1	1	-	-	-	-	-	-
Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko Errekt.	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Errektoregoa	-	-	-	-	-	-	4	-	-	-
Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errekt.	-	-	-	-	1	1	-	1	-	-
Farmazia F.	1	2	2	1	2	6	-	5	3	8
Gasteizko Erizaintzako UE	-	2	2	1	-	-	-	-	-	1
Gasteizko Ingeniaritza E.	6	2	2	1	1	1	2	5	1	3
Gerentzia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Gipuzkoako Biblioteka	4	2	1	2	-	1	1	-	-	1
Gipuzkoako Esperientzia Gelak	-	7	-	1	-	-	-	1	-	1
Gipuzkoako Ingeniaritza E.	1	2	10	4	9	10	12	2	3	3
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	9	2	6	5	1	6	5	4	3	14
Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errekt.	-	-	2	-	-	-	2	-	-	-
Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren Errekt.	-	-	-	-	-	-	1	1	-	-
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F.	11	9	21	7	13	15	8	6	8	17
Hezkuntza eta Kirol F.	6	3	4	7	1	2	5	4	7	2
Idazkaritza Nagusia	1	-	-	-	-	1	-	2	1	-
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errekt.	-	-	-	-	2	1	5	-	-	1
Ikasleen Kontseilua	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ikerketaren arloko Errekt.	-	1	-	-	-	-	-	1	-	2
IKTen Gerenteordetza	2	2	2	1	1	-	2	5	-	2
Ikuskaritza Zerbitzua	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
IMH Ingeniaritza Duala UE	4	6	7	-	1	1	-	-	-	-
Informatika F.	2	-	-	3	4	3	2	3	-	3
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza	-	-	-	1	-	-	-	-	2	-
Kimika F.	-	-	-	1	4	-	-	1	1	1
Kirol Zerbitzua	-	1	1	-	1	-	-	-	-	-
Kontabilitate eta Aurrekontuen Gerenteordetza	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Lan Harreman eta Gizarte Langintza F.	-	1	-	-	1	-	-	2	3	2
Letren F.	7	3	3	7	7	10	7	13	5	11
Materialen Fisika Zentroa	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Medikuntza eta Erizaintza F.	12	19	15	17	11	11	9	16	13	5
Psikologia F.	6	9	10	5	1	4	6	10	5	5
Ondare eta Kontratazioko Gerenteordetza	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Pertsonaleko Gerenteordetza	2	-	-	-	1	1	-	-	2	1
Prebentzio Zerbitzua	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Zuzenbide F	9	5	9	6	10	8	7	8	11	14
Beste batzuk **	14	8	20	18	13	20	26	22	27	13
Guztira	139	119	164	138	138	142	148	159	149	163

*2019ra arte, Master eta Doktorego Eskolatik iritsitako kasuak barne hartzen ditu.

**UPV/EHUtik kanpoko pertsonen planteatutako gaiak barne hartzen ditu.

1.7. Aztergai motak

Aztergaien sailkapenari dagokionez, 2024an jaso dira 106 kontsulta eta 47 kexa. 12. grafikoak konparatzen ditu datu horiek aurreko urteetakoekin.




Bilakaeraren grafikoan, 2019ra arte behera egiten du pixkanaka kexen kopuruak, eta gora, aldiz, kontsulta gisa planteatutako gaienak. Urte horretatik aurrera, mantendu egin da bulegoan aurkeztutako aztergaien sailkapena: iristen diren aztergaien laurdenak gorabehera kexak dira; gainerakoak, kontsultak edo bitartekaritza eskaerak.


Kontsulta oso baliabide egokia da kasu gehienek tratamendua bideratzeko. Prozedura azkar bat da, eskatzen duena bizkor aztertzea, ikertzea eta kontrastatzea, konponbide egoki bat emateko planteatzen zaigun gaiari. Aldiz, kexaren prozedura burokratizatuago dago, eta fase dokumental landuagoak behar dituzten egoeretarako uzten da.

1.7.1. Kolektiboek planteatutako aztergai motak


13., 14. eta 15. grafikoetan ikus daiteke aztergai mota (kontsulta, kexa eta bitartekaritza eskaera) bakoitzaren bilakaera, kolektiboka.



2024an gora egin du kontsulta kopuruak Ikasle eta TEKAZEL kolektiboetan; behera, "Beste batzuk" kategorian (13. grafikoa). Kexei dagokienez (14. grafikoa), behera egin dute "Beste batzuk" kategoriaren kexek, mantendu egin dira ikasleenak, eta gora egin dute irakasle-ikertzaileenak eta TEKAZELeko langileenak. Aztertzen badugu bi kolektibo horien kexek hamar urteetan izan duten bilakaera, gorabeherak ikus daitezke, baina 2021. urtera arte beheranzko joera orokorra izan ondoren, urte horretatik aurrera goraka hasi ziren, eta 2024an goranzko joera horretan jarraitzen dute.




2024an ez da bitartekaritza eskaera berririk erregistratu, baina lanean jarraitu dugu aurreko urteetan bulegora iritsitako gaietan.




1.7.2. Emakumeek eta gizonen planteatutako aztergai motak


Atal honetan erreparatuko diogu aztergaiek generoaren arabera duten bilakaerari. Esan dugunez, 2024. urtean 86 emakumek jo dute aldezlearengana eta 90 kasu planteatu dituzte; aldiz, 70 gizonen 73 kasu planteatu dituzte. Aztergai batzuk batera planteatzen dituzte pertsona batek baino gehiagok. 16. grafikoak erakusten du urtero eginiko kontsulta kopurua. 2024an gora egin du gizonen egindako kontsulta kopuruak, eta azken hamar urteetako daturik altuenera iritsi dira. Jasotako kexa kopuruari dagokionez (17. grafikoa), 2024an gora egin du bai emakumeen kexa kopuruak bai gizonenak, eta azken zortzi urteetako kopuruak gaitzitu dituzte. Emakumeek planteatutako aztergaien %30 eta gizonen planteatutakoen %27 kexa modura erregistratu dira. Jasotako kontsulten guztizkoari begiratzen badiogu, %54 emakumeenak dira eta %46, gizonenak. Beraz, ez dago alde esanguratsurik generoaren arabera aztergaien banaketan.



17. grafikoa. Emakumeen eta gizonen kexak



18. grafikoa. Emakumeen eta gizonen bitartekaritza eskaerak



1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako aztergaiak

Kolektiboek zehazki zer motatako arazoak (edozein eratakoak, ez soilik kexak) planteatzen dituzten jakiteko, lau taula aztertuko ditugu jarraian, ikasleei, irakasle-ikertzaileei, TEKAZELEko langileei eta "Beste batzuk" kategoriari dagozkienak, hurrenez hurren (2., 3., 4. eta 5. taula).

Tauletan, zerrenda urdinez nabarmendu dira gutxienez bost urtez errepikatu diren gaiak. Bestetik, taula guztietan, parentesien artean adierazi da zenbat kasutan esku hartu duen aldezeak –gaiaren edukia gorabehera– zegokion organoak ez erantzuteagatik. Horrelako kasuetan, sakoneko gaia prozedura kontuekin gurutzatzen da, hala nola idatzi edo errekurso bati epean ez erantzutea, eta kasu horretan aztergaia kategoria nagusiaren barruan sartzen da.

2. taulan ikus daitezke ikasleek planteatutako aztergaiei dagozkien gaiak. 2024an, gehien errepikatutako gaiak izan dira:

1. **"Ikaskuntzaren ebaluazioa"**: 2024an, gai honi loturiko ikasleen 15 aztergai jaso dira. Batean izan ezik, kasu guztietan planteatu dira ikasleek ebaluazio arloan dituzten eskubideekin zerikusia zuten kontsultak. Kasu bakar hori kexa bat zen, kalifikazioak argitaratzeko epeak ez betetzeagatik eta datu pertsonalak babesteko eskubidea urratzeagatik.

Kontsultak askotarikoak ziren; hala nola ebaluazio araudiaren aplikazioari buruzkoak eta araudian espresuki jasotakotik ateratzen den kasuistikaren bat planteatzen denean ikasleek dituzten eskubideei buruzkoak. Adibidez, ikasleek galdetu dute ea eskubiderik baduten ohiko deialdian gainditutako irakasgai bat ezohiko deialdian ebaluatzeko (kalifikazioa hobetzeari begira), edo zilegi ote den irakasgai baten ohiko deialdian praktikak gainditzeko betebeharra ezartzea, azterketara aurkeztu ahal izateko. Era berean, jakin nahi zen zer egin behar den irakasgai baten azterketa partzialak huts eginez gero, edo eskubiderik badagoen azterketa eguna aldatzeko, ofizialki ezarritako egunean probara joateko ezintasun justifikatua izateagatik. Halaber, aldezeleari galdetu diote ea eskubiderik baduten azterketa partzialen eta etengabeko ebaluazioko beste proba batzuen kopiak lortzeko, irakasgaia eman duten irakasleek ez beste batzuek ebaluatuak izateko, eta ebaluazio proben erantzun zuzenak lortzeko.

2. **"Kanpoko praktikak"**: 2024an planteatu dira curriculumeko edo curriculumetik kanpoko praktikak egiten ari ziren ikasleen 8 aztergai. Kasu gehienetan galdetu da ea praktikek eskubidea ematen duten Gizarte Segurantzaren alta emateko eta dagokiona kotizatzeke. Kasu batean jakin nahi zen ea derrigor errekupeatu behar diren azterketak egiteagatik praktiketan huts egindako egunak. Bi kasutan, aztergaia aurkeztu zen kexa modura: kasu batean, kanpoko praktika batzuen aitorpena ez lortzeagatik (ezetsi egin zen kexa, jakin zenean praktikak hasi zirela baina ez zirela

amaitu); beste kasua kexa kolektibo bat zen, Medikuntzako Graduako ikasleena, uste zutelako ez zirela betetzen ari Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak Medikuntzako seigarren mailako Txandakatzea egiten ari ziren ikasleen kasuan. Kexa hori baietsi egin zen, eta nahiz eta zaila izan horren ikasle kopuru handi baten altaren tramitazioa egitea Gizarte Segurantzarekin, oso positiboa izan zen errektoreordetzetatik, ikastegietatik eta zerbitzuetatik jasotako erantzuna, eta nabarmentzekoa da hori.

3. **"GRAL/MAL"**: gradu eta master amaierako lanetan izandako gorabeherei buruzko 6 aztergai tramitatu dira. Lau kasutan galdetzen zen GRALen araudiaren aplikazioari buruz. Beste biak kexak ziren. Lehenengoa, eskatutako GRALa ukatzeagatik, araudiak une horretan ezarritako baldintzak bete arren (eskaera egiteko unean aplikatzekoa zen araudiak ezarritako baldintzez bestelakoak). Beraz, planteatzen zen atzeraeraginez aplikatzea eskatzaileari mesede egiten zion araudia. Kexa baietsi zen eta ikastegiak baiezkua eman zuen, eta eskatutako GRALa esleitu zitzaion ikasleari. Bigarren kexa ezetsi egin zen. Ikastegiak ez zion uzten ikasleari GRALaren matrikula eta defentsa egiten, haren espedientean falta zirelako beste unibertsitate batean mugikortasun programa batean lortutako kalifikazioak. Arazoa zen ez zirela bateragarriak helmugako unibertsitateko ebaluazio epeak eta UPV/EHUko GRALaren matrikula epeak, eta kalifikazioak ez ziren garaiz iristen, ikastegian matrikula epea itxi aurretik. Kontuan izanik araudiak eskatzen duela titulazioko kreditu guztiak gainditzea (GRALa izan ezik) GRALaren defentsa egiteko, bere garaian ikasleei horren inguruan ohartarazi zitzairen, aintzat har zezaten mugikortasun programetan helmugako unibertsitatea aukeratzeko orduan; are gehiago, laugarren mailako ikasleei gomendatu zitzairen bigarren lauhilekoa egitea UPV/EHU'n, arazo hori ez izateko.
4. **"Ikasleen ordezkaritza"**: gai honetan sartu dira ikasleen ordezkariak egindako lau kontsultak, araudiaren interpretazioari buruzkoak; hala nola ordezkariak hautatzea, karguak berritzea kide anitzeko organoetan, edo Ikasleen Kontseiluaren Barne Funtzionamenduaren Araudia aldatzea.

Gainerako gaiak askotarikoak izan dira, eta kasu kopuru txikiagoa dago horietako bakoitzean. Den-denak ikus daitezke taula honetan

2. taula. Ikasleen aztergaiak

Gaia	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Arautegia ez betetzea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Arazoak agintariekin	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Arazoak kideekin	-	6	-	-	1	-	-	1	4	2
Aretoak eta instalazioak erabiltzea	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	1	2	4	2	2	-	-	2	-	-
Datuak babestea	1	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Diziplina araubidea	-	1	-	-	-	1	-	1	-	-
Doktorego aurreko kontratua	-	-	-	-	-	-	1	-	-	2
Doktorego tesia	5	2	-	1	2	1	3	1	2	-
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	2	1	-	-	2	1	1	-
Etenaldi akademikoa	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Etika akademikoa	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Euskarazko arreta	-	1	1	-	-	-	-	1	-	-
Euskarazko irakaskuntza	-	-	-	1	-	-	-	1	-	2
Familia kontziliazioa	-	1	-	-	-	1	1	-	1	-
Genero indarkeria	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	2	1	3	3	2	3	3	5	2	6
Gradura egokitzea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Greba	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Hauteskunde prozesuak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Ikasketetarako sarbidea	1	1	2	2	-	4	-	-	-	1
Ikaskuntzaren ebaluazioa	21	17(1)	33	9	13	20	10	10	20	15
Ikasleen ordezkaritza	1	1	-	1	1	1	-	1	-	4
Ikasleentzako zerbitzuak	-	-	-	2	-	-	-	-	-	-
Ikastegiko zuzendariaren portaera	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Informatika aplikazioak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	1	2	-	2	-	-
Intimitaterako eskubidea	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Irakaskuntza ingelesez	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Irakaskuntza telepresentziala	-	-	-	-	-	-	5	-	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	15	7	9	4	5	5	4	4	4	3
Irakasleen portaera	2	1	2	5	4	2	3	4	2(1)	2
Jendaurreko arreta	2	-	-	-	2	1(1)	-	-	1	-
Kanpoko praktikak	2	2	2	3	1	1	3	-	3	8
Kide anitzeko organoak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Kode etikoa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Kredituak aitortzea	-	-	-	-	-	5	1	-	1	1
Laguntzak/bekak	4 (1)	1	4	4	6	2	-	4	1	1
Lan baldintzak	-	-	3	-	-	-	-	-	-	-
Matrikula	3	4	7	6	7	4	1	4	5	-
Matrikula baliogabetzea	1	-	-	1	1	3	1	-	-	2
Mugikortasuna	1	-	-	4	4	1	3	6	1	2
Ondarezko erantzukizuna	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Plazak/ordezkapen poltsak	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-
Premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta	-	1	1	-	-	-	3	1	1	1
Presoentzako arreta	1	1 (1)	-	-	-	1	-	-	-	-
Prezio publikoak	2	2	2	2	1	1	1	2	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	2	-	1	1	-	2	2	4	1	2
Tratu baztertzaila	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Tratu berdintasuna	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
UPV/EHUn Jarraitzeko Arauak	-	-	-	2	3	2	-	1	-	-
Bestelakoak	-	1	1	-	2	1	3	1	1	3
Guztira	67(1)	54(2)	81(0)	57(0)	59(0)	67(1)	51(0)	61(0)	53(1)	60(0)

Irakasle-ikertzaileen kasuan (3. taula), gehien errepikatzen diren gaiak dira sailetan plazak eskuratzea edo promozioa, eta saileko kideen arteko bizikidetza arazoak. Irakasle-ikertzaileen beste gai batzuk dira irakaslana banatzean izandako arazoak, doktorego tesiak zuzentzean izandako gorabeherak (tesiak gordailutzeko epea), ekipo edo aplikazio informatikoen funtzionamendu arazoak, edo ikasleekiko gorabeherak irakats lanean.

Plazak/ordezkapen poltsak epigrafean, irakasle-ikertzaileek batez ere jakin nahi zuten ea eragiten zien gai edo neurriren bat aplikatu beharreko araudiaren araberakoa zen. Adibidez, planteatzen zen, besteak beste, lanpostu baten deialdian ezarritako baremazio irizpideen legezkotasuna, sailak plaza jakin bat eskatzeko ezarritako irizpideen egokitasuna, sailaren eskubidea kanpoko finantzaketa duten ikertzaileen postuetara sartzeko baldintzak ezartzeko, euskarari merezimendu gisa emandako tratamendua plaza baten deialdian, edo "lehentasunezko merezimenduaren" irizpidearen aplikazioa irakasle laguntzaile doktoreen plazak eskuratzeko orduan. Esan bezala, tematika honen aztergaiak kontsulta modura aztertzen dira bulegoan, oro har, abian den hautaketa prozesu baten barruan sortzen diren gaiak direlako eta lege ezarritako prozeduraren arabera ebatzi behar direlako, eta eskumena duten organoek egin behar dute hori, kanpoko esku-hartzerik gabe.

Arazoak kideekin kategorian sartzen dira sail baten barruko bizikidetza arazoak, saileko kideen artean edo kide baten eta saileko zuzendaritzaren artean. Batez ere kontsulta modura heldu zaizkigu bulegora, eta kasu hauetan saiatzen gara proposatzen irakaskuntzan eta ikerketan lanerako giro egokia sortuko duten neurriak.

Desadostasunak sortu ohi dituen beste gai bat da **Irakaslana banatzea** ardura hori duten sailetan. Iritsi zaizkigun kontsultetan, desadostasun nagusiak zetozen sailaren banaketa irizpideetatik. Gainera, ezbaian jartzen zen SHEE irakasleek irakaskuntza hautatzeko duten lehentasuna, eta galdetzen zen ea lehentasuna zuten plaza lortu zen irakasgaia aukeratzeko, edo irakats ahalmenari zegozkionak baino kreditu gehiago emateko betebeharra zegoen.

3. taula. Irakasle-ikertzaileen aztergaiak

Gaia	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	2	2	3	-	1	-	-	2
Arazoak agintariekin	-	-	-	-	1	-	-	1	1	-
Arazoak kideekin	5	3	3	6	2	5	10(1)	4	4	7
Baimenak	-	-	-	1	-	1	-	-	-	2
Barne kontrola	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	1	2	1	-	-	-	1	1
Bizikidetzara arauak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Burokrazia	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-
Datuak babestea	1	-	-	1	2	3	2	1	2	1
Diziplina araubidea	-	-	2	2	-	3	1	-	-	-
Doktorego aurreko kontratua	-	-	-	-	-	-	1	1	-	-
Doktorego tesia	1	-	2	1	3	-	2	2	-	5
Ebaluazio epaimahaiak hautatzea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Elkargoko kide egitea	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Erosketak	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Errektoregoaren portaera	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Erretiroa	-	-	-	-	-	-	1	4	1	-
Etika akademikoa	1	-	-	2	3	-	-	2	2	1
Euskarazko arreta	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Euskarazko irakaskuntza	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Familia kontziliazioa	1	-	1	1	-	1	-	-	-	-
GAUren arazoak	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1
Greba	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Hauteskunde prozesuak	-	-	-	-	-	1	-	-	-	2
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	-	-	-	-	1	-	1	-	2	-
Ikaskuntzaren ebaluazioa	-	3	3	3	1	1	1	1	3	2
Ikasleen kexen protokoloa	-	-	-	-	-	-	-	2	1	-
Ikasleen portaera	2	2	2	2	2	-	1	1	2	3
Ikastegiko zuzendariaren portaera	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ikerketa proiektuak	-	-	-	-	1	-	2	1	2	1
Ikertaldeak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Informatika aplikazioak/IKT zerbitzuak	-	-	-	1	5	1	-	-	3	3(1)
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	1	5	1	3(1)
Intimitatea, ohorea eta norberaren irudia besteko eskubidea	-	-	-	-	-	3	-	-	-	-
Irakaskuntza betebeharrak	-	-	-	-	-	2	-	-	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	1	1	1	1	1	3	1
Irakaslanaren banatzea	4 (1)	8 (2)	5	7 (1)	5	4	3	3	3	6
Irakaslanaren ebaluazioa	1	3(1)	2	-	2	3	-	-	1	1
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	-	1(1)	-	-	-	-	-	-	1
Irakasleen portaera	-	-	-	2	2	1	1	1	2	-
JAP/Kredituen aitortza	-	2	-	-	-	1	-	1	1	1
Jazarpena/jazarpen portaerak	2	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Jendaurreko arreta	-	-	1	1	-	-	-	-	-	-
Katedra askatasuna	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Kide anitzeko organoak	-	-	-	-	1	-	-	2	1	3
Laguntzak/bekak	1 (1)	1	2	-	-	-	-	1(1)	2(1)	1
Lan baldintzak	2	6	10 (1)	1	3 (1)	2	3	3	2	1
Lanen ebaluazio etikia	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Matrikula baliogabetzea	-	-	1	1	-	-	-	-	-	-
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	-	-	-	-	3	1	1	-
Ordezkaritza organoaren portaera	1	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Osagarri gehigarriak	3	-	3	-	-	-	3(1)	-	-	1
PIF ordainsariak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Plazak/ordezkapen poltsak	7 (1)	2	8	6	5	6	6(1)	10(1)	6(2)	8
Prebentzio eta segurtasun neurriak	-	-	-	-	-	-	2	-	-	1
Premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta	-	-	-	-	-	-	2	-	-	1
Presoentzako arreta	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	2	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	-	-	-	-	-	-	-	2
Tratu berdintasuna	-	-	-	2	1	2	-	-	-	-
Zerbitzu ordainak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Bestelakoak	4	1	1	2	2	1	6	5(1)	4	3
Guztira	42(3)	41(3)	51(2)	48(1)	48(1)	43(0)	56(3)	55(3)	51(3)	69(2)

TEKAZELeko langileei dagokienez (4. taula), errepikatu den gai bakarra izan da **Plazak/poltsak/lekualdatze lehiaketak**, eta ez da harritzekoa, kontuan hartzen badugu 2024an unibertsitatea LEP prozesu betean egon dela, funtzionarioak eta lan kontratadunak hautatzeko, bai eta funtzionarioen barne promozioko prozesu batean ere. Hala, langileen kexak jaso ditugu, LEPn eskainitako lanpostuekin ados ez zeudelako eta lanpostu jakin batzuen LPZa aldatzeko eskaerari erantzun ez zaiolako. Azkenik, heldu zaizkigun kontsultak izan dira hautaketa prozesuaren faseetan egintzak zuzentzeko, alegatzeko edo aurkaratzeko aukerei buruzkoak.

4. taula TEKAZELeko langileen aztergaiak

Gaia	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	2	1	1	-	-	-	-
Arautegia ez betetzea	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Arazoak lankideekin	-	1	-	-	-	-	-	4	-	1
Azpiegiturak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Burokrazia	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Datuak babestea	-	-	-	1	1	-	-	-	-	-
Diziplina araubidea	-	1	-	-	-	-	1	-	-	-
Erretiroa	1 (1)	-	-	-	-	-	-	2	2	-
Euskarazko irakaskuntza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Gatazka hierarkian gorago dagoen pertsonarekin	1	-	-	-	-	-	1	-	2	-
Gizarte arretak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	1	2	1	2	1	1	-	-	-	-
Ikaskuntzaren ebaluazioa	-	-	-	-	-	2	-	-	2	-
Ikasleen portaera	1	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Informatika aplikazioak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Informazioa eskuratzeko eskubidea	2 (2)	-	-	-	-	1(1)	-	-	-	-
Intimitatea, ohorea eta norberaren irudia babesteko eskubidea	-	-	-	1	-	2	-	-	-	1
Irakasleen portaera	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Jazarpena/jazarpen portaerak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Jendaurreko arreta	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Kide bakarreko karguak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Kideen portaera	-	-	4	-	-	-	-	-	-	-
Laguntzak eta bekak	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1
Lan baldintzak	5 (1)	6 (1)	3 (1)	4	4(1)	1	4	7	3(1)	1
Lanpostuen balorazioa	-	-	-	-	-	-	1(1)	1	-	-
Lizentziak eta baimenak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1
Merezimenduen balorazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-
Merezimenduen ebaluazioa	1 (1)	-	1	-	-	-	-	1	1(1)	-
Plazak/poltsak/lekualdatze lehiaketak	2	-	3(1)	2	6	3	3(2)	4	1	11(3)
Prebentzio eta segurtasun neurriak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Prezio publikoak	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Telelana	-	-	-	-	-	-	2	-	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	1	1	-	-	-	-	-
Bestelakoak	1	1	-	-	3	1	-	1	4	2
Guztira	16(5)	14(1)	12(2)	15(0)	18(1)	12(1)	15(3)	21(0)	18(2)	21(3)

Azkenik, "Beste batzuk" kolektiboan (5. taula), aztergai gehienak dagozkio **Plazak/ordezkapen poltsak** epigrafeari, TEKAZELeko langileen kasuan aipatutako arrazoi beragatik. Jaso ditugun kontsultak izan dira epeei buruzkoak (alegazioak egiteko, administrazio egintzak aurkaratzeko edo eskubideak berreskuratzeko, adjudikazioak baliogabetzean), eta eskubideei buruzkoak (proba bat egiteko eskubidea, probatik baztertua izan denean, edo aurkeztutako titulazioarekin lan poltsa jakin batean sartzeko eskubidea).

"Beste batzuk" kolektiboaren barruan, hainbat kexa jaso ditugu **Tituluak eta ziurtagiriak** atalean. Kexa bat zen erreklamazio kolektibo bat, unibertsitate irakasleak prestatzeko laguntzen onuradun ziren doktoregaiena, UPV/EHUrekin kontraturik ez zutenak. Pertsona horiek irakaslanetan lagundu behar zuten, beren prestakuntzan zehar, matrikulatuta zeuden unibertsitatean, eta, kasu honetan, kexu ziren kolaborazio horren ziurtagiria lortzeko oztopoengatik. UPV/EHUko langileak ez zirenez, ezin zuten irakaslana grabatu GAUREn, eta arazoak zituzten gero kolaborazioaren ziurtagiria lortzeko. Kexa honen berri eman zitzaion Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzari, eta arazoa konpondu zen.

5. taula “Beste batzuk” kategoriaren aztergaiak

Gaia	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Aretoak eta instalazioak erabiltzea	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Datuak babestea	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Diziplina araubidea	-	1	1	1	-	-	1	-	-	-
Doktorego tesia	-	-	-	-	1	-	1	-	-	1
Doktoregoko ezohiko sariak	-	-	-	-	-	-	-	-	3	-
Erretiroa	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	1	-	1	-	2	2	1	1
Etika akademikoa	-	-	1	-	-	1	-	-	-	1
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	1	-	-	1	-	-	-	-
GAURen arazoak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	-	1	-	-	-	-	-	1	1	-
Gradura egokitzea	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	4	1	3	3	1	6	6	6	5(1)	1
Ikaskuntzaren ebaluazioa	-	-	-	-	-	-	-	1	1	-
Ikasleen portaera	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ikerketa proiektuak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Informatika aplikazioak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	1	-	-	1	1	1	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Jazarpena/jazarpen portaerak	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Kanpoko praktikak	-	-	-	1	-	-	1	-	1	-
Laguntzak/bekak	1	2	2	1	1	1	-	1	-	-
Lan baldintzak	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Matrikula	-	-	-	-	-	2	-	1	1	-
Matrikula baliogabetzea	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Plazak/ordezkapen poltsak	2	1	1	3	3	5	6(1)	1	1	4
Presoentzako arreta	1	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Prezio publikoak	-	-	1	-	-	1	-	-	2	-
Tituluak eta ziurtagiriak	1	1	4 (1)	3	2	1	-	3	4	2(1)
Unibertsitatera sartzeko probak	1	-	-	2	-	1	2	1	-	1
UPV/EHUn jarraitzeko arauak	-	-	-	-	-	-	1	1	-	-
Zerbitzu ordainak	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Bestelakoak	2 (1)	-	3	2	2	-	2	2	4	1
Guztira	14(2)	8(0)	20(1)	18(0)	13(0)	20(0)	26(1)	22(0)	27(1)	13(1)

1.9. Bulegoaren esku-hartzea

Bulegora iritsi diren 163 aztergaien artetik, 116 kontsultek erantzun egokia izan dute.

Jasotako 47 kexetatik, 7 ez dira onartu: 2 ohiko prozedura ez agortzeagatik (ez ziren presazkoak), 2 gaia judizializatuta egoteagatik edo administrazio erabakiaren zain egoteagatik, 2 hauteskunde gai bat izateagatik, eta kexa bat, jada ebatzitako gai bat izateagatik.

2024an jaso ditugu aurreko urteetan baino kexa gehiago, eta gutxiago izan dira onartu gabekoak. Ondorioz, kexa gehiago tramitatu dira. Rexak ez onartzeko arrazoi nagusia izan ohi da ohiko prozedura ez agortzea. Gogoratu behar da, aldezearen erregelamenduaren arabera, salbuespen kasuetan izan ezik (presazko gaiak), gure zerbitzuak ez duela esku hartzen ohiko prozedurak eta bideak agortu aurretik, erakundeenganako errespetuak eragotzi egiten baitigu gaian eskumena duen instantziaren ordeztaritzea.

Beraz, 40 kexa onartu dira (jasotakoen %85,1). Horien artetik, 17 ezetsi dira, xeheki aztertu ondoren Zuzenbideak kexaren xedea babesten ez duela kontsideratu delako. Onartutako kexa baten kasuan, aurkezleak berak atzera egin du, kexaren jomuga zen organoaren erantzunak gogobete duelako. Hortaz, azkenean, kexa aurkezlearen eskaeraren bat edo denak baietsi dira onartutako kexetatik 22tan (onartutakoen %55). 6. taulak konparatzen ditu datu hauek aurreko urteetakoekin.

6. taula Jasotako, onartutako eta baietsitako kexak

	Jasoak	Onartuak (jasotakoen %)	Baietsiak (onartutakoen %)
2015	50	32 (% 64,0)	20 (% 62,5)
2016	47	26 (% 55,3)	17 (% 65,4)
2017	41	37 (% 90,2)	18 (% 48,7)
2018	33	30 (% 90,9)	14 (% 46,7)
2019	31	28 (% 90,3)	16 (% 57,1)
2020	39	26 (% 66,7)	11 (% 42,3)
2021	39	31 (% 79,5)	12 (% 38,7)
2022	39	32 (% 82,1)	16 (% 50,0)
2023	39	29 (% 74,4)	12 (% 41,4)
2024	47	40 (% 85,1)	22 (% 55,0)
Guztira	405	311 (% 76,8)	158 (% 50,8)

Horrenbestez, aurreko urteekin alderatuta, azken urte honetan nabarmen igo dira jasotako kexen kopurua, tramitera onartutako kexen kopurua eta erreklamaziogilearen eskaerak baietsi diren kexen kopurua.

1.9.1. Baietsitako kexen gaiak

7. taulak biltzen ditu baietsitako kexen gaiak. Urdinez nabarmendu dira gutxienez bost urtez errepikatu direnak.

Ikasleen multzoan, 6 kexa baietsi dira, hainbat gairi buruzkoak (matrikula baliogabetzea, doktorego aurreko kontratua, euskarazko irakaskuntza, kanpoko praktikak, tituluak eta ziurtagiriak, eta GRAL/MAL). Irakasle-ikertzaileen kasuan, 8 kexa baietsi dira, gai askotarikoei buruzkoak (ikasleen portaera, laguntzak eta bekak, doktorego tesia, informatika aplikazioak, informazioa eskuratzea, premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta, eta ziurtagiriak). Azkenik, TEKAZELeke langileen 5 kexa baietsi dira, kexarako arrazoi nagusia izanik organo bati eginiko eskaerei erantzun ez izana. "Beste batzuk" kolektiboan, 3 kexa baietsi dira, eskatutako ziurtagiria lortzeko zailtasunei eta administrazio erabakiak ez betetzeari buruzkoak.

7. taula. Baietsitako kexen gaiak

Gaia	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Arautegia ez betetzea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Arazoak kideekin	-	2	1	-	-	-	-	-	-	-
Baliozkotzeak/kredituen aitortza	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Doktorego aurreko kontratua	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Doktorego tesia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ebaluazio berezia	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-
Euskarazko arreta	-	-	1	-	-	-	-	1	-	-
Euskarazko irakaskuntza	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1
Gradu/Master amaierako lana	1	-	-	-	-	-	1	-	-	1
Ikaskuntzaren ebaluazioa	1	3	3	-	-	3	-	-	-	-
Ikasleen ordezkaritza	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Intimitaterako eskubidea	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	-	1	-	-	2	-	3	-
Irakasleen portaera	-	-	-	2	-	-	-	-	-	-
Jendaurreko arreta	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Kanpoko praktikak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Kredituak aitortzea	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Laguntzak/bekak	1 (1)	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Matrikula	-	-	1	-	1	1	-	-	-	-
Matrikula baliogabetzea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Mugikortasuna	1	-	-	-	1	-	-	1	-	-
Premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta	-	-	-	-	-	-	2	1	-	-
Presoentzako arreta	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-
Prezio publikoak	1	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
UPV/EHUn jarraitzeako arauak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Ikasleak guztira	5(1)	8(2)	6(0)	4(0)	3(0)	4(0)	6(0)	7(0)	4(0)	6
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	2	-	-	-	-	-	-	-
Arazoak kideekin	-	-	-	1	1	-	1	1	-	-
Baimenak	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Burokrazia	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-
Datu pertsonalak babestea	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Doktorego tesia	-	-	-	-	-	-	-	1	-	2
Erosketak	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Etika zientifikoa (irakasleak)	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Euskarazko arreta	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
GAURen arazoak	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
IHP	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-
Ikasleen portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	1
Ikerketa proiektuak	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Informatika aplikazioen funtzionamendua	-	-	-	-	2	-	-	-	-	1(1)
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1(1)
Intimitatea, ohorea eta norberaren irudia babesteko eskubidea	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Irakaslanaren banatzea	1 (1)	2 (2)	-	1	-	-	-	-	1	-
Irakaslanaren ebaluazioa	-	1(1)	-	-	2	-	-	-	-	-
Irakasleen portaera	-	-	-	1	1	-	-	-	-	-
Jendaurreko arreta	-	-	1	1	-	-	-	-	-	-
Laguntzak/bekak	1 (1)	-	-	-	-	-	-	1(1)	-	1
Lan baldintzak	1	1	2 (1)	-	1(1)	-	-	-	-	-
Ordezkaritza organoaren portaera	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Plazak/ordezkapen poltsak	2 (1)	-	-	-	-	2	-	1(1)	1(1)	-
Premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Tratu berdintasuna	-	-	-	1	1	-	-	-	-	-
Bestelakoak	-	-	-	-	-	-	-	1(1)	-	-
IRI guztira	6(3)	7(3)	7(2)	6(0)	9(1)	4(0)	2(0)	6(3)	3(1)	8(2)

7. taula. Baietsitako kexen gaiak (jarraipena)

Gaia	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Erretiroa	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Gizarte arretak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	2 (2)	-	-	-	-	1(1)	-	-	-	-
Intimitatea, ohorea eta norberaren irudia babesteko eskubidea	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Irakasleen portaera	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Jendaurreko arreta	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Lan baldintzak	2 (1)	1 (1)	2 (1)	1	2(1)	-	-	1	1(1)	1
Merezimenduen ebaluazioa	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	1(1)	-
Plazak/poltsak/lekualdatze lehiaketak	-	-	1 (1)	-	1	-	-	2	-	3(3)
TEKAZEL guztira	6(5)	2(1)	3(2)	3(0)	3(1)	2(1)	1(0)	3(0)	2(2)	5(3)
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	1	-	-	-	-	-	1	-	2	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Jazarpena/jazarpen portaerak	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Plazak/poltsak/lekualdatze lehiaketak	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	1 (1)	-	1	-	-	-	-	2(1)
Bestelakoak	1 (1)	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Beste batzuk guztira	3(2)	-	2(1)	1(0)	1(0)	1(0)	3(0)	0(0)	3(0)	3(1)
GUZTIRA	20(11)	17(6)	18(5)	14(0)	16(2)	11(1)	12(0)	16(3)	12(3)	22(6)

1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

8. taulan ikus daitezke baietsitako kexen jomuga diren organoak eta kolektiboak (sei urtez edo gehiagoz errepikatzen direnak nabarmendu dira).

8. taula Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

Kolektiboak eta organoak	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Argitalpen Zerbitzua	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Arkitektura GET Zuzendaritza	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Arte Ederren F. Idazkaritza	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Bilboko Hezkuntza F. Dekanotza	1	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Bilboko Ingeniaritza E. Idazkaritza	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Bilboko Ingeniaritza E. Zuzendaritza	-	-	-	-	-	-	2	-	-	-
Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
DBHko Irakasleen Prestakuntzako M. Zuzendaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Desgaitasunak dituzten pertsonentzako zerbitzua	-	-	-	-	-	-	2	1	-	-
Doktorego E.*	-	1	-	-	1	-	-	-	-	1
Ekonomia eta Enpresa F. Dekanotza	-	-	-	-	-	1	-	-	2	-
Epaimahai Berezia	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Erosketen atala	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Errektoregoa	1	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errekt.	1	1	-	-	1	-	-	2	-	1
Gasteizko Erizaintzako UE Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Gerentzia	-	1	1	1	-	2	2	3	-	-
Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza	-	-	-	1	-	-	-	1	-	-
Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errekt.	-	-	1	1	-	-	1	-	-	-
Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren Errekt.	-	-	1	-	1	-	-	1	-	1
Hainbat zerbitzu eta ikastegi	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Hezkuntza eta Kirol F. Dekanotza	1	-	-	-	-	-	1	-	1	-
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F. Dekanotza	-	-	-	-	1	-	-	-	-	2
Idazkaritza Nagusia	3	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Ikaslea	-	2	2	-	-	-	-	-	-	1
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetza	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	2	1	-	-	1	-	-	-	1	2
IKTen Gerenteordetza	-	-	1	-	3	-	-	-	-	1
Ikuskizunaren Arteak eta Zientziak M. Zuzendaritza	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
IMH Ingeniaritza Duala UE Zuzendaritza	-	-	2	-	-	-	-	-	-	-
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza	3	3	3	2	2	1	-	3	3	4
IRI	-	3	1	4	2	2	1	3	-	-
Itsas Ingeniaritzako M. Zuzendaritza	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Kanpoko Praktiken Zuzendaritza	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Komunikazio Bulegoa	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Legezko ordezkaria	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Master Lanbideratzailearen Zuzendaritza	-	-	2	-	-	-	-	-	-	-
Medikuntza eta Erizaintza F. Dekanotza	-	-	-	-	2	1	1	-	1	-
Pertsonaleko Gerenteordetza	3	-	1	1	1	2	-	-	-	5
Saileko zuzendariak	-	1	-	1	-	1	-	-	1	-
Sarbidea	1	-	-	-	-	-	-	-	2	-
TEKAZEL	-	-	1	-	-	-	-	-	1	1
UPV/EHU – Osakidetza Batzorde Parekidea	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Zerbitzuburua	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Zuzenbide F. Dekanotza	1	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Guztira	20	17	18	14	16	11	12	16	12	22

*2019ra arte, Master eta Doktorego Eskolatik iritsitako kexak barne hartzen ditu.

1.10. Jaso dugun erantzuna

Rexen jomuga ziren pertsona edo organoengandik jasotako erantzuna ona izan da beti, eta ongi hartu dituzte gure bulegoak egindako gomendioak (ikus 9. taula).

9. taula. Kexen jomuga ziren organoen erantzuna

Erantzuna	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Ona	18	15	16	12	16	10	10	15	11	15
Ona, neurri batean	2	2	1	-	-	-	1	-	1	5
Ezezkoa	-	-	1	2	-	1	1	1	-	-
Erantzunaren zain	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Guztira	20	17	18	14	16	11	12	16	12	22

1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen laguntza

Urteko txostenaren aurkezpenak ematen digun aukeraz baliatuta, eskerrak eman nahi dizkiegu beste behin Aldezlearen zerbitzuarekin kolaboratu duten eta gure lanean lagundu diguten pertsona guztiei: ikastegietako idazkaritzetako eta sailtako langileak, ikastegietako zuzendariak eta dekanok, sailtako zuzendariak, zerbitzuetako arduradunak, Errektore Taldeko kideak, ikasleak, etab.

2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk

Rontsultak eta kexak jaso, tramitatu eta ebazteko ohiko jardueraz edo bitartekaritza prozesuez gain, beste zeregin batzuk ere izan ditugu.

2.1. Elkarlana G9 taldeko defendatzaileekin

Telematikoki parte hartu genuen UPV/EHU kide den G9+ taldearen Unibertsitate Defendatzaileen Topaketan. 2024ko urtarrilaren 29an eta 30ean egin zen, Badajozen, Extremadurako Unibertsitateak antolatuta.

Gai hauek aztertu ziren:

- 1) Kredituak/irakasgaiak aitortzea.
- 2) Defentsa Bulegoak estatutu berrietan.
- 3) Unibertsitateko gatazkak konpontzea: zaharretik berrira.

Halaber, hurrengo topaketan ere izan ginen, 2024ko irailaren 16an eta 17an, Toledon, Gaztela-Mantxako Unibertsitateak antolatuta. Gaiak izan ziren:

- 1) Ikasgelako arazoak kudeatzea.
- 2) Diziplina akademikoa.
- 3) Bizikidetzarazoak IRI eta TEKAZEL kolektiboetan.
- 4) Osasun mentala unibertsitatean: arreta psikopedagogikoko zerbitzuak.

2.2. Unibertsitate Defendatzaileen Estatuko XXVI. Topaketa

2024ko urriaren 23tik 25era, Unibertsitate Defendatzaileen Estatuko XXVI. Topaketa egin zen Huelvako Unibertsitatean. Gai hauek aztertu ziren:

- 1) Inklusioa eta aniztasunarekiko arreta unibertsitateetan, irakaskuntzaren, ikerketaren eta kudeaketaren alorretan.
- 2) Kultura errestituratu baterantz unibertsitatean: desafioak, arriskuak eta aukerak.
- 3) Unibertsitate defendatzaileen funtzionamendua: araudia, beste unitate batzuekiko konkurrentzia eta jardunbide egokiak.
- 4) Espainiako unibertsitateetako ikasleen problematikak.
- 5) Iraganeko desafioak eta gaurko desafioak unibertsitate defendatzaileentzat: Huelvako Unibertsitatearen Defendatzaileen Bulegoaren 25. urteurrena.

2.3. CEDUren XVII. Ohiko Batzar Nagusia

2024ko urriaren 24an, Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren XVII. Batzar Nagusia izan ginen, Huelvako Unibertsitatean.

2.4. Elkarlana CEDUren defendatzaileekin, foroetan parte hartuz

Unibertsitate defendatzaileen arteko etengabeko elkarlanaren barruan, ohikoa da posta elektronikoa erabiltzea hainbat gai planteatu eta haiei buruzko informazioa eskatzeko. 2024an, gure bulegoak ekarpenak egin ditu CEDUren defendatzaileek planteatutako gaien inguruan. Gainera, erantzun egin diegu aztertutako gaiei buruzko informazioa eskatuz iritsi zaizkigun inkesta guztiei.

2.5. UPV/EHUren Gobernu Kontseiluetan parte hartzea

Aldezlea Gobernu Kontseiluaren bileretan izan da, gonbidatu gisa. Gobernu Kontseiluaren bileretan parte hartzeak aukera ematen digu sakonago ezagutzeko gure unibertsitatearen eztabaidak, proposamenak eta akordioak, bai eta sortzen diren arazoak ezagutu eta ulertzeko ere, eta hori guztia oso baliagarria da gure lanerako.

3. Urteko txosten ekonomikoa

2024ko aurrekontua 20.000 eurokoa izan da. 10. taulan ikus daitezke gastuen laburpena eta kontuen egoera urteko ekitaldi ekonomikoa ixteko datan (abenduak 31).

10. taula. 2024ko laburpen ekonomikoa

Hasierako aurrekontua	20.000,00€
Gastuak	
Bulegoko materiala, fotokopiak...	1.387,93 €
CEDUko bazkide kuotak	225,00 €
Liburuak	67,59 €
Bidaiak eta dietak	6.235,08 €
Beste gastu batzuk	60,34 €
Gastuak guztira	7.975,94€
Saldoa	12.024,06€

4. Ondorioak eta gomendioak

2024. urtean eginiko kontsultak eta kexak oinarri hartuta, atal honetan hainbat gogoeta partekatu nahi ditugu unibertsitateko kideekin, bulegora iritsi diren zenbait gairen harira, bai eta gure ustez arreta berezia merezi duten beste kontu batzuen harira ere, gizarteari ematen diogun zerbitzua hobetze aldera.

Ohartarazi nahi dugu lerro hauetan aztertuko ditugun gaiak ez direla erabakigarriak estatistikaren ikuspuntutik eta ezin direla hartu UPV/EHUren jardueraren adierazgarritzat. Gai zehatzak dira, eta bakanak, kasu gehienetan. Edonola ere, uste dugu gai hauei buruz gogoeta egitea, nahiz eta esanguratsuak ez izan unibertsitatearen jarduera osoari dagokionez, ezta gaiak planteatzen dituzten kolektiboek dagokienez ere, mesedegarria izan daitekeela unibertsitatearen zerbitzua hobetzeko, horixe delako azken batean aldezearen egitekoa.

UPV/EHUren diziiplina prozedurekin zerikusia duten gaiak

Ikasleen Kontseiluak gogoeta bat eskatu dio aldezeleari diziiplina prozedurei buruz eta, bereziki, plagoetan eta iruzur akademikoetan Adimen Artifiziala erabiltzei buruz.

Hasteko, saiatuko naiz bloke honen hasieran ikasleen eskaerari erantzuten, eta aldezearen iritziz kontuan hartzekoak diren beste gai batzuk ere barne hartzen. Zehazki, aipatuko ditut tipikotasun printzipioarekin eta erantzukizun printzipioarekin zerikusia duten gaiak, araututa daudenak Unibertsitate Bizikidetzari buruzko Legean (UBL) eta Unibertsitate Klaustroak onartutako araudian (zehazki, 2023ko uztailaren 4ko bilkuran onartutako UPV/EHUren Ikasleen Falta eta Zehapenei buruzko Araudia).

Eredu zentralizatua eta unibertsitate autonomiaren gutxiespena

Analisiari heldu aurretik, komeni da atariko ohar bat egitea Unibertsitate Bizikidetzari buruzko Legeak diziiplina araubidea arautzean planteatzen duen arau eredu orokorrari buruz. Zigor arloan, lege erreserbaren printzipioak agintzen du. Hau da, lege mailako arau baten bidez zehaztu behar dira legez kontrako jokabideak eta horiei dagozkien zigorrak. Parlamentuaren arau bat. UBLk aintzat hartzen du lege erreserbaren printzipioa eta indargabetu egiten du espresuki 1954ko Diziiplina Akademikoko Erregelamendua. Arau berriak helburu bikoitza du. Alde batetik, arau eta printzipio multzo bat garatzen du, unibertsitate bizikidetzaren ardatz izan behar dutenak. Legearen lehen zati hori garatu egin da UPV/EHU, Gobernu Kontseiluak UPV/EHUren Bizikidetzara Araudia onartuta (2023ko abuztuaren 22ko EHAA). Bestetik, unibertsitate ikasleen diziiplina araubidea ezartzen du (UBLren 1.2 artikulua), legearen zatirik trinkoena dena. Bigarren zati hori dagokionez, UBLn eginiko tipifikazioa dentsitate handikoa da. UBLk eredu itxi baten alde egin du, arau hausteak eta zigorrak tipifikatzen dituelako ia erabatekotasunez, Autonomia Erkidegoen tipifikatzeko aukera mugatuz, bai eta unibertsitateek tipifikazioan Legearekin kolaboratzeko aukera mugatuz ere, Konstituzioak haien autonomia bermatzen badu ere (EK 27.10 artikulua).

Nire ustez, gutxietsi egin da unibertsitateek diziplina araubidearen definizioan duten zeregina. UBLren irakurketatik sortzen den ideia bat da kontrajarri egiten direla unibertsitate autonomia eta zigor legezkotasuna, jarduteko tarte handia aitortzen duelako unibertsitateko kideen portaera arauak erregulatzeko haren bizikidetza arauen bidez. Gure Bizikidetza Araudia saiatzen da jokabide kopuru handi bat sustatzen, eta betebeharrak orokorrak ezartzen ditu gure jokabideari, debekuei eta abarri dagokienez. Nolanahi ere den, mugatua da UPV/EHUK arau hausteen tipifikazioan eragiteko duen gaitasuna.

Aldezleak uste du alferrik galdu dela unibertsitateen zeregina zabaltzeko aukera teknikoki artikulatzeko posibilitatea, haien autonomian oinarrituta, toki administrazioak hasitako bidearen ildotik, oinarritua, hain zuzen ere, Konstituzioak biei ala biei aitortzen dien autonomian. Legea muga zitekeen "antijuridikotasunerako gutxieneko irizpideak" ezartzera, zeinen arabera unibertsitate bakoitzak arau hauste tipoak ezar zitzakeen, udal eremuan gertatzen den bezala, non Legeak oinarritzko irizpide batzuk preskribatu besterik ez duen egiten, tiporik definitu gabe, ezta generikoak ere; bai, ordea, arau hauste motak ezartzean udalerrri bakoitzaren balorazioa baldintzatzen duten irizpideak. Teknika hori unibertsitatean eraman zitekeen. Alde horretatik, agian, teknikoki ondo eraikitako esparru bat aurreikus zitekeen Legean, unibertsitateei eginkizun aktiboagoa emateko diziplina araubidearen erregulazioan, haien autonomia garatuz eta bat etorritik unibertsitate bakoitzak bizikidetzari buruzko erregulazioan oinarrituta zehazten dituen aurreikuspenekin.

Izan ere, unibertsitate bakoitzak bere autonomian oinarrituta onartutako bizikidetza esparruak arautu egin behar ditu unibertsitateko kideen arteko harremanak eta horien eta unibertsitate erakundearen artekoak, nahiz eta zuzendu ahal izango diren gure unibertsitatearen bizikidetza araudiak ezarritako betebeharren urraketak, uniformetasun eta zentralismo maila handi batez ezarritako diziplina sistema baten bidez. Seguruenik, botere publikoek unibertsitatearekiko duten mesfidantza da deskonpentsazio hori azaltzen duen arrazoia.

Unibertsitatearen diziplina boterearen konfigurazio berria

UBLren tipifikazioaren zenbait alderdiri heldu aurretik, komeni da nabarmentzea beste funtsezko ideia bat. UBLk berritasun batzuekin taxutu du unibertsitate publikoen diziplina ahala. UBLren irakurketak garamatza, lehenik eta behin, diziplina araubide berriaren lege konfigurazioaren ezaugarri orokor batzuk azpimarratzera:

Lehenik, diziplina prozedura *ultima ratio*-tzat hartzen da bizikidetza arauen urraketak zuzentzeko, eta lehentasuna ematen zaio bizikidetza nahas dezaketen gatazketan modalitate alternatiboak bilatzeari; hala nola bitartekaritza (UBLren 1.1 artikulua). Bitartekaritza alternatibatzat hartzen da diziplina ahalaren ordezkotza gisa; are gehiago, ahal hori jartzen da diziplinaz kanpoko ebazpen prozesuan izan daitekeen adostasunik ezaren mende. Edonola ere, bitartekaritzak bere mugak ditu eta ez du denetarako balio. Ezin da ordeztu diziplinazkoa dena bitartekaritzaren bidez. Bitartekaritza lehentasunez erabili behar da halakorik egin daitekeen kasuetan.

Bigarrenik, Legeak berritasunak ditu; adibidez, gatazken prebentzio ikuspegia (UBLren 4. artikulua) edo zigor batzuen orde neurri hezitzaile eta berreskuratzaileak ezartzeko aukera (UBLren 20.1. artikulua). Hau da, planteatzen du zigorrak bateragarri egitea, "ahal den neurrian", unibertsitate hezkuntzarako oinarritzko eskubidearekin; adibidez, kanporatzeko zigorra ez betearaztea ebaluazio aldietan (UBLren 14.4.a artikulua).

UBLk aintzat hartzen dituen faktore horiek berekin dakarte unibertsitate diziplina araubidearen ikuskera berri baten karakterizazioa. Ikuskera berri hori orain arte indarrean egon den ereduaren antipodetan dago, 1954an Pazo de Meirás delakoan emandako Diziplina Akademikoko Araudi anakroniko eta aurrekonstituzionaletik sortutakoa. Diziplina Akademikoko Araudiaren xede nagusia zen ordena publikoa zaintzea unibertsitateetan, Estatu diktatorial batek berezkoa zuen modu batean. Eta arau hauste erabat ireki eta zehaztugabeak zituen; hala nola "zintzotasunik eza", "ordenaren perturbazioa", "hitz lizunak esatea edo egitate lizunak egitea", "desordena publikoak", "difamazioa" edo "Erligioaren eta moral katolikoaren edo Estatuaren printzipio eta erakundeen aurkako adierazpenak egitea". Arau hauste tipoen zehaztugabetasun horren ondorioz, zalantzazkoa zen Konstituzioaren ikuspegitik, eta zaila zen, hain zuzen ere, bateragarria izatea tipikotasun printzipioarekin.

Pertsonen duintasunari kalte larria, fisikoki edo psikologikoki, eragiten dioten jokabide edo jardura iraingarriak

UBLn jasotako arau hausteen lehen multzo bat saiatzen da pertsonen duintasuna babesten. Den-denak 11. artikuluan daude, eta falta "oso larritzat" hartzen dira. Adibidez, "nobatadak" eta pertsonen duintasunari kalte larria eragiten dioten jokabide edo jardura iraingarriak (fisikoak edo psikologikoak).

Bigarren kasu horretan, nobataden kasuan ez bezala, emaitza faktore bat sartzen da: jarduerak edo jokabideek "kalte larria" eragitea pertsonen duintasunari. Tipifikazioak faktore kualifikatzaile bat du.

Faktore kualifikatzaile horren logika etor liteke jokabide iraingarriak (fisikoki edo psikologikoki, inolako kualifikaziorik gabe) beheko eskalan, arau hauste larri gisa, tipifikatzetik. Dena dela, falta larrien zerrenda errepasatuta, ez dago horrelakorik. Portaera iraingarriak ez dira, berez, diziplinazko arau hausteak, eta halakotzat hartzeko, kalte larria eragin behar diote pertsonen duintasunari.

Zer ulertu behar den kalte larritzat, ez da kontu erraza. Logikaz, izan beharko du intentsitate handia edo, gutxienez, nolabaiteko munta duen kaltea. Hau da, edo jokabide iraingarriak arau hauste "oso larritzat" hartzen dira, "kalte larria" eragiteagatik pertsonen duintasunari, edota, bestela, zigorrik gabe geratuko dira. Oso zaila da balorazio irizpide hori zehaztea eta haren logika ulertzea. Agian, pertsonen duintasunaren "kalte larria" hobeto sar zitekeen zigorra indibidualizatzeko irizpideen artean, arau hauste tipoaren osagai gisa baino.

Aurrekoarekin lotuta, deigarria da Legeak arau haustetzat hartu ez izana irakasleekiko, ikaskideekiko edo unibertsitateko beste kide batzuekiko irainak, kalumniak, errespetu

faltak edo begirunerik eza. Jokabide horiek bateraezinak dira unibertsitate bizikidetzarekin, eta badirudi diziiplina araubideak ahaztu egin dituela. 1954ko Diziiplina Akademikoko Erregelamendutik, kontsiderazio faltak neurriz kanpo baloratzen zituen, kontrako muturrera igaro gara UBL berrian. Nekez justifika daiteke UBLk alde horretatik erakusten duen erabateko aurreikuspenik eza, ez baititu babesten, diziplinazko bidetik, UPV/EHU n gure Bizikidetzara Araudiaren bidez ezarri ditugun irizpideak eta printzipioak.

Oro har, esan daiteke arau aurreikuspen txar batek eragin dezakeela, edo argi eta garbi bizikidetzara arauen aurkakoak diren jokabideen atipikotasuna, edota, bestela, erantzuna (diziiplina ahalaren bidez bitartekoak aurkitu ezean) ahal akademikoen bidez bideratzearen arriskua, ahal hori argiki desbideratzea ekar lezakeena, saihestu beharreko zerbait beti.

Plagioa, iruzur akademikoa eta Adimen Artifiziala

Lan bat osorik edo zati batean plagiatzea, edo iruzur akademikoa egitea Gradu Amaierako Lanean, Master Amaierako Lanean edo Doktorego Tesian, arau hauste oso larritzat hartzen da (UBLren 11.g artikulua); aldiz, iruzur akademikoa egitea (gainerako kasuetan —azterketak, beste lan ebaluagarri batzuk, etab. —), arau hauste larritzat (12.d artikulua). Arau horiek bi gauza desberdini buruzkoak dira: plagioa eta iruzur akademikoa.

Plagioa soil-soilik aipatzen da UBLren 11.g artikuluan, eta ez 12.d artikuluan. Ondorioz, obra baten plagio osoa edo partziala zigortuko da arau-hauste "oso larriei" dagozkien zigorren bidez. Hau da, plagioa horrela zigortuko da, kontuan izan gabe non egin den: doktorego tesi batean, MAL batean, GRAL batean edo ikasleek eginiko beste edozein lanetan. Plagio guztiak tipifikatzen dira arau hauste oso larritzat.

UBLk ez du definitzen zer den plagioa. Plagioa litzateke besteren lanak kopiazea, norberarenak balira bezala, probetxua ateraz horrela beste pertsona batek sortutakoari. Jurisprudentziak dioenez, "*plagiotzat hartu behar da, haren adiera sinpleenean, besteren lanak funtsean kopiazeak dakarren guztia*".

UBLren 11.g artikulua dio obra bat "guztiz edo partzialki" kopiazea. Plagioak ez du esan nahi lan bat osorik kopiatu behar denik, eta ez da mugatzen kopia berdina bat egitera. Plagioa izan daiteke, esaterako, zalantzan jarritako lanak partzialki erreproduzitzea beste obra batzuen atalak, jatorrizkoarekiko aldaketak dituen ere, obra desberdinak direla ondorioztatu ezin denean. Lanen arteko kontraste analisi zorrotz bat egin behar da, unibertsitate lan batean plagioa egin den ala ez erabakitzeko.

Unibertsitateko plagioaz aritzean, kontuan hartzekoa da ikasleek gai honi buruz duten informazioa eta, batez ere, lanetan aipamenak eta erreferentziak behar bezala sartzeko modua azaltzearen garrantzia. Alde horretatik, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen 32. artikulua honako hau dio 1. paragrafoan: "*1. Zilegi da norberaren obra batean sartzeari inoren idatzizko, soinu-entzunezko obren pasarteak, [...], betiere obrak lehendik jendarteratuak badira eta aipu gisa edo haien azterketa edo iruzkina egiteko edo iritzi kritikoa emateko sartu badira. Erabilera hori irakaskuntzan edo ikerketan egin ahal izango da bakarrik, txertatze horren xedeak justifikatzen duen neurrian eta erabilitako obraren izena eta egilea aipatuz*".

Adimen Artifiziala eta plagioa

Plagioarekin lotutako beste gai bat da adimen artifizialarekin duen harremana. Lehenik eta behin, geure buruari galdetu behar diogu ea plagioaz hitz egin daitekeen ikasle batek, bere material propio gisa, adimen artifizialeko tresnetatik (ChatGPT edo DeepSeek) lortutako edukia erreproduzitzen duenean. Kontua da adimen artifizialeko tresnek sortutako materiala hartzen den ala ez egile eskubideei lotutako obratzat. Aldezlearen ustez, erantzunak ezezkoa izan behar du. Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateginaren 5. artikulua araber, *"Egile jotzen da: obra literario, artistiko edo zientifiko bat sortzen duen pertsona naturala"*. Hau da, lehenik eta behin, Legeak egilea babesten du, eta izan daiteke pertsona natural bat edo gehiago. Bigarrenik, kontuan izan behar da babesten dena obra bat dela, eta soilik sortzen dituzte jabetza intelektualeko eskubideak egile batek sortutako lan originalek.

Hori horrela izanik, nekez har daiteke sorkuntza intelektualtzat adimen artifizialeko tresnen bidez eginiko lan bat, eta ezinbestekoa da alde horretatik gizakiaren esku hartzea. Hori ondoriozta daiteke ere adimen artifizialaren arloan arau harmonizatuak ezartzen dituen 2024/1689 (EB) Erregelamendu berritik, zeinak exijitzen baitu modu argi eta bereizgarrian argitaratzea "modu artifizialean" sortutako edo manipulaturako edukiak, haien jatorri artifiziala adierazita.

Adimen artifiziala erabiltzeari lotuta dagoen beste gai bat da iturrien kontrola. Adimen artifizialeko tresnak askotariko datu iturrietatik elikatzen dira, batzuk jabetza intelektualeko eskubideen mende; beste batzuk, ez. Tresna horiek erabiltzeak bermatu egin beharko luke sortutako edukiek dagozkien baimenak edukitzea.

Adimen artifizialeko tekniken bidez sortutako edukiak obratzat ez hartzeak (jabetza intelektualeko eskubideei eta egile eskubideei dagokienez) ez du esan nahi zigortu ezin direnik, eta hori egongo da irakasgaien Irakaskuntza Gidetan jasotakoaren mende. Jakina, ezin izango da zigortu plagio gisa, baina bai agian iruzur akademiko gisa, baldin eta tresna hauen erabilera debekatu bada edo material mota hau ikasleen obra original gisa erabiltzen bada, ez baita horrela, ikasleak bilaketa zuzendu badu ere. Guztiz gomendagarria litzateke gai hau argitzea UPV/EHUren arau orokorren baten bidez edo, halakorik ezean, irakasgaien Irakaskuntza Gidetan.

Iruzur akademikoaren definizioa

Ikusi dugun bezala, iruzur akademikoa ez da berdin tipifikatzen GRAL, MAL eta doktorego tesietan, alde batetik, edo beste lan mota batzuetan, bestetik. Lehenengo kasuan, falta oso larria izango da; bigarren, falta larria.

Iruzur akademikoari dagokionez, haren definizioa da kontuan hartu beharreko lehen gauza. Iruzur akademikoa praktika desonest eta ez-etiko bat da, eta haren definizioa dago UBLren 11.g) artikuluan (GRAL, MAL eta doktorego tesiei buruzkoa). Honako hau da:

"Se entenderá como fraude académico cualquier comportamiento premeditado tendente a falsear los resultados de un examen o trabajo, propio o ajeno, realizado como requisito para superar una asignatura o acreditar el rendimiento académico".

Definizioaren karakterizazioa konplexua da. Lehenik eta behin, "jokabide premeditatu" batean oinarritu behar da. Arauak exijitzen du premeditazioa egotea; hau da, aurretiazko borondatea, gogoeta, eta iruzur akademikoa egiteko prestakuntza irmoa eta plangintza. Hasiera batean, ados egon gaitezke iruzur akademikoa egiteko beharrezkoa dela, nolabait, aurretik asmoa edo premeditazioa egotea; hots, iruzurraren subjektu aktiboak iruzurra egiteko hautua egiten du, eta hautu horrek denbora gutxi-asko luzeagoan irauten du. Dena dela, artikulua premeditazioa aipatzea bitxia da, pentsa daitekeelako, premeditaziorik ez balitz, ez litzatekeela beteko arau hauste tipoaren elementuetako bat. Elementu horren konkurrentziak balizko iruzur "espontaneo" bat planteatzera garamatza, atipikoa, iruzur "premeditatuaren" aurkako norantzan, antijuridikoa dena.

Beharbada, baldintza horren izateko arrazoia da definizioa eraikitzen dela falta oso larrien kasuetarako (iruzurra GRAL, MAL edo doktorego tesian, non, plagiorik izanez gero, premeditatu izango den), baina definizio hori iruzurrera zabaltzen da (ez bakarrik plagiara). Arazoa da ez dela beste hondar definiziorik eraikitzen, premeditaziorik exijituko ez duena falta larrietarako edo arinetarako. Hau da, falta oso larrien definizio bera zabaltzen da falta larrietara. Azken batean, iruzur akademikoaren zehaztapenean, premeditazioak berekin dakar falta tipoaren elementu erabakigarritzat hartzea. Premeditaziorik ezean, ez da iruzur akademikorik egongo eta, ondorioz, jokabidea soilik zuzendu ahal izango da ebaluazio ahalen bidez.

Iruzur akademikoaren lege kontzeptuak behar ditu arazketa eta zehaztasun handiagoa, eta unibertsitateek espezifikazioak sartu behar dituzte hobeto identifikatzeko jokabide arau hausleak. Gure kasuan, hori egin da falten eta zigorren katalogoko 5.e) artikulua bidez, iruzur akademikotzat hartzen diren jokabideen multzo bat aurreikusi duena. Nolanahi ere, eta hau nabarmentzekoa da, iruzurraz hitz egiteko premeditazioa behar da, arau hausteen gure katalogoko 5. artikulua ere hala eskatzen duelako.

Erantzukizunaren mugaketa geografikoa edo espaziala

UBLren 9. artikulua lehen apartatuaren arabera: *"El estudiantado de las universidades públicas queda sujeto al régimen disciplinario establecido en este Título respecto de la actividad desarrollada en las instalaciones, sistemas y espacios de la*

universidad'. Arauak kokatzen du erantzukizuna eremu jakin baten barruan: unibertsitate campusa, haren instalazioak eta espazioak (birtualak eta elektronikoak barne).

Bestetik, Falta eta Zehapenei buruzko Araudiaren 1.2 artikulua honela mugatzen du ikasleen erantzukizuna:

"UPV/EHUko ikasleak arautegi honetan ezarritako falta eta zehapenen araubideari lotuta egongo dira unibertsitatearen instalazio, sistema eta espazioetan egindako jardueretan, hala fisiko nola birtualetan, edo beren jardun akademikoarekin lotutako guztietan, kanpoko praktikak, landa irteerak eta antzeko jarduerak barne".

Erantzukizunetik salbueste honek zerikusia izango luke unibertsitate organoen lurralde eskumenaren mugekin, ñabardura batzuk egitea merezi badu ere. Unibertsitate instalazioetatik kanpoko leku batean eginiko nobatada bat (hala nola egoitza batean, taberna batean, edo jarduera ez-akademikoetan... edo WhatsApp bezalako komunikazio sistemak erabiliz eginikoa —unibertsitate sistemetatik kanpokoa—) ez litzateke zigorgarria izango UBLren arabera; bai, ordea, campus barruan edo unibertsitate espazio birtualetan egin izan balitz.

Aldezlearen iritziz, kasu honetan, erantzukizunetik salbuestea ez da juridikoki sendoa. Gure ustez, gaia modu delikatuago batean bidera zitekeen, gertakariaren antijuridikotasun materiala aztertuta, unibertsitate bizikidetzaren araudiak bermatu nahi dituen balioekin lotuta; hau da, aztertuta ea jokaerak oinarririk baduen unibertsitate harremanean eta ondoriorik, harreman horretan.

Beste eremu batzuetan, hala nola administrazio publikoen zerbitzura dauden langileenean, ez da aurreikusten diziiplina erantzukizunaren espazio mugaketarik. Diskriminazioa (adibidez) dakarten WhatsApp mezuak bidaltzen dituen irakasle batek falta oso larritzat tipifikatutako jokabidea izango du. Aldiz, ikasle batek horixe bera egingo balu, UBLren arabera ezin izango litzateke zigortu. Ez du logikarik erantzukizunetik salbuestea objektiboki tipikoak diren UBLren jokabideak campusetik kanpo gertatzen direnean; are gehiago, jokabide horiek hauspotzeko modu bat izan daiteke, zigorgabeak direlako —campusetik metro gutxira eginda ere— unibertsitate diziplinarentzat.

Erantzukizunaren mugaketa pertsonala eta hura borondatez azkentzea

Diziiplina ahala erabiltzeko UBLk ezartzen duen lehen baldintza da unibertsitate publiko bateko ikasle izatea. Elementu subjektiboa da diziiplina araubidearen eremuaren edo hedaduraren ezaugarria. Arau haustearen erantzuleak unibertsitate ikasle izan behar du arau haustea egiteko unean, eta horixe da, hain zuzen ere, unibertsitatearen eskumena determinatzen duena eta diziiplina ahala subjektuaren (ikaslea) gainean egikaritzea funtsatzen duena.

UBLren arabera, *"ikasleak unibertsitatearekin duen lotura amaitzea"* izango litzateke erantzukizuna iraungitzeko arrazoia (UBLren 17.1.c artikulua). Arau haustearen erantzuleak

—unibertsitateko ikaslea— ikasle izateari uzten badio zigorra ezarri aurretik, dela ikasketak uzteagatik, matrikulari uko egiteagatik edo beste unibertsitate batera joateagatik, bertan behera geldituko da diziiplina erantzukizuna.

Paradoxikoa da ikasleen diziiplina erantzukizuna bertan behera gelditzeko posibilitatea, subjektu arau hauslearen beraren borondatez, aukera ematen diolako iskin egiteko diziiplina prozedurari: prozedura abian jarri ondoren eta hura amaitu aurretik, eska dezake espedientea beste unibertsitate batera lekualdatzeko. UBLren 17.1.c artikulua lege konfigurazioak ez du horretarako tarterik uzten, ikasle arau hauslearen diziiplina erantzukizuna “azkentzen” baitu.

Planteatutako problematikari irtenbideak aurkitze aldera, bi norabidetan egin daiteke gogoeta. Alde batetik, diziiplina ahalari iskin ez egiteko, prozedura izapidetzen hasi den unibertsitateak ezar lezake diziiplina prozedura baten mende dagoen ikaslearen espedientea lekualdatzeko ezintasuna, behin-behineko neurri gisa eta eman daitekeen erabakiaren efikazia ziurtatze aldera. Gutxienez, jatorri unibertsitateak diziiplina prozedura ireki baten berri eman beharko lioke helmuga unibertsitateari. Diziiplina prozedurari buruzko unibertsitate araudian sar liteke ikasleen espediente akademikoan diziiplina prozeduren hasiera behin-behinean jasotzeko beharra, eta inskripzio hori ofizioz ezeztatzea, jarduketak artxibatzea erabakiz gero.

Bigarren gogoeta hauxe da: arau haustearen egilea erantzule ez izateak (ikasle izateari utzi diolako) edo zigorra arau haustea egin den unibertsitatean aplikatu ezin izateak (unibertsitate horretako ikasle izateari utzi diolako) ez du esan nahi diziiplina prozedura artxibatu behar denik eta haren izapidearekin jarraitu ezin denik, azken erabakira arte. Prozedura izapidetzen jarraitu ahal izango da, inolako arazorik gabe, behin betiko erabakira arte, eta erabaki horrek diziiplina zigorra badakar, betearazteke geratuko da, ikaslea (hala badagokio) unibertsitate berera itzuli arte.

Beste kontu bat da ea posible den zigorra zabaltzea beste unibertsitate batzuetara. Hasiera batean, aukera hori, benetan eraginkorra izateko, legegileak aurreikusi beharko zukeen, eta ez da aurreikusi, UBLren hasierako zirriborro batean espresuki jaso bazen ere. Zirriborro horrek aukera ematen zuen zigorrak beste unibertsitate batzuetan betetzeko, arau hauste larrien eta oso larrien zigorren kasuan bakarrik. Espedientea beste unibertsitate batera aldatuz gero, bigarren unibertsitate horretan beteko luke zigorra ikasleak. Diziiplina erabaki batek beste unibertsitate batzuetan dituen ondorioak aitortzen ziren, ikasle berari eragiteagatik, eta aitortzen hori, teorian, bidezkoa da, helmuga unibertsitatean ere aplikatu daitekeen arau hauste batetik datorrelako (Estatuko arau batean jasota dagoelako). Nolanahi ere, ezer ez da aipatzen horri buruz gaur egun indarrean dagoen UBLn. Antza, legegileak berak nahita baztertu du zigorren ondorioak beste unibertsitate batzuetara zabaltzeko aukera.

Edonola ere, azkenean ezarritako zigorra baldin bada aldi baterako kanporatzea eta ebaluatua izateko eskubidea galtzea, uste dugu zigor horrek berekin dakarrela (modu osagarrian nahitaez) espediente akademikoa beste unibertsitate batera eraman ezin izatea, zigorra eman den ikasturtean. Gogoan izan behar da zer dioen urriaren 1eko 39/2015

Legearen 39.4 artikulua: *"Administrazio publikoetako organoek bete egin behar dituzte gainerako administrazio publikoetako organoek beren eskumena baliatuz emandako arau eta egintzak, nahiz eta mendekotasun hierarkikorik ez izan haien artean edo beste administrazio batekoak izan".*

Etengabeko ebaluazio proben erreklamazioak

Ikasleen ordezkari batek aldezeleari azaldu dizkio etengabeko ebaluazio sistemaren barruko ebaluazio proba batean dituen arazoak. Irakasgaiaren Irakaskuntza Gidaren arabera, ebaluazio proba baztertzaila zen; hau da, gutxieneko nota bat behar zen proba gainditzeko, eta gainditzeko ez bazen, *gutxi* zen automatikoki etengabeko ebaluazioaren azken kalifikazioa. Zehazki, ikasleak adierazi zigun ezin zuela erreklamaziorik aurkeztu Sailaren Erreklamazio Batzordean, irakasleak uko egin ondoren tarteko ebaluazio proba berrikusteari.

Ez dugu baloratuko komenigarria edo egokia den tarteko ebaluazio probak sartzea etengabeko ebaluazioaren sisteman, etengabeko ebaluazioa baldintzatuko dutenak (arauak debekatzen ez duen zerbitzu). Gai nagusia da ea gure araudiak behar bezala bermatzen duen ikaslearen eskubidea organo kalifikatzaileak ez beste batek kalifikazioa berrikusteko.

Jakina denez, berrikuspenaren ondoren, erreklamazioa aurkez daiteke Sailaren Erreklamazio Batzordean. Hori horrela, araudiak elementu formal bat jartzen du bigarren aukera horren baldintza gisa; hots, aktak argitaratzea. Tarteko proben aktak ez dira argitaratzen GAURen, eta horretan datza, hain zuzen, arazoa. Graduako ebaluazio araudiak honela arautzen du erreklamaziorako eskubidea:

"Ikaslea ez badago ados berrikuspenaren emaitzarekin, erreklamazio idatzia aurkeztu ahal izango dio saileko zuzendariari sei egun naturaleko epean, aktak argitaratu ziren egunetik hasita" (22.a artikulua)

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, lauhilekoa amaitzean aurkez daiteke tarteko proba baten erreklamazioa Sailaren Erreklamazio Batzordean, behin argitaratuta etengabeko ebaluazioaren azken aktak. Hala ere, aldezelearen iritziz, sistema horrek ez ditu behar bezala bermatzen ikasleen eskubideak, tarteko proba baztertzaila denean edo guztiz baldintzatzen duenean etengabeko ebaluazioaren azken emaitza. Hau da, tarteko ebaluazio proba gainditzeko ez bada, eta kalifikazio horrek eragozten badu etengabeko ebaluazioarekin jarraitzea, aldezeleak uste du bitartekoren bat jarri beharko litzatekeela bermatzeko berrikuspen oso baterako eskubidea.

Aldezelearen ustez, bereizi egin beharko lirateke etengabeko ebaluazio araubidean jarraitzea eragozten duten probak (Irakaskuntza Gidaren arabera gutxieneko nota eskatzen dutenak, adibidez) eta jarraitzea eragozten ez dutenak, oso desberdinak direlako proba batzuen eta besteen ondorio juridikoak.

Behintzat, egungo sisteman (ezin erreklamatu daiteke etengabeko ebaluazio proba bat), gutxieneko notara ez iristeak ez luke eragozpen izan behar ikaslearentzat etengabeko ebaluazioaren hurrengo probak egiten jarraitzeko, baldin eta ikasleak irakasleari jakinarazten badio proba horren kalifikazioaren aurkako erreklamazioa aurkeztuko duela, etengabeko ebaluazioaren azken emaitzak argitaratzean. Horren arazoa hauxe da: erreklamazioak aurrera egingo ez balu, alferrikakoa izango litzateke hurrengo probetarako eginiko prestaketa lana, bai eta proba horietan lortutako kalifikazioa ere. Are gehiago, eskubide galera bat ekar liezaioke ikasleari, azken ebaluaziora aurkezteko aukera muga lezakeelako (baldin eta bigarren ebaluazio modalitate horretara igaro badaiteke, *gutxiegi* kalifikazioa lortzean edo probetako batean gutxieneko kalifikaziora ez iristean).

Aldezlearen gomendioa honako hau da: kontuan hartu behar da etengabeko ebaluazio sistema osatzen dutela probek eta kalifikazioek, eta azken administrazio egintza batekin amaitzen dela; hots, etengabeko ebaluazioaren kalifikazio globala. Hortaz, tarteko proben kalifikazioak izapide egintzak izango lirateke, eta azken kalifikazioa, behin betiko egintza. 39/2015 Legearen arabera, izapide egintzak, hasiera batean, ezin dira zuzenean errekurritu (gure kasuan berriak daitezke), eta dituzten akatsak alegatu behar dira azken kalifikazioaren aurkako errekurtsioa jartzean, behin betiko egintza baita. Hala ere, legeak aukera ematen du, zenbait kasutan, izapide egintzen aurka jotzeko. Hori da, hain zuzen ere, 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan arautzen diren "izapide egintza kualifikatuen" kasua. Honela dio artikulua:

"Ebazpenen eta izapide egintzen aurka, azken horiek gaiaren funtsa erabakitzen badute zuzenean edo zeharka, prozedurak jarraitu ezina eragiten badute, defentsa gabezia edo eskubide eta interes legitimoen kalte erreparaezina sortzen badute, interesdunek aukera izango dute gora jotzeko errekurtsioa eta aukerako berraztertze errekurtsioa aurkezteko, oinarritzat harturik deuseztasunari eta deuseztagarritasunari buruz lege honen 47. eta 48. artikuluetan azaldutako arrazoietakoren bat.

Gainerako izapide egintzen aurka egonez gero, interesdunek alegatu egin behar dute, prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean hori kontuan hartzeko".

39/2015 Legearen 112.1 artikulua logikari jarraituz, honako hau interpreta daiteke: etengabeko ebaluazio probek, gutxieneko nota eskatzeagatik, "*gaiaren funtsa zuzenean edo zeharka erabakitzen badute*", "*prozedurak jarraitu ezina eragiten badute*" edo "*defentsa gabezia edo eskubide eta interes legitimoen kalte erreparaezina sortzen badute*", aukera egon beharko litzateke berrikusteko eta Sailaren erreklamazio organoan erreklamazioa aurkezteko. Hau da, probak nahitaez gainditu behar badira etengabeko ebaluazioarekin jarraitzeko, ulertzen da haien kalifikazioa dela izapide egintza kualifikatu bat, eta aukera eman beharko litzateke erreklamazioa aurkezteko (berrikuspena ezetsi ondoren) organo eskudunaren aurrean; kasu honetan, Saila.

Kanpoko praktiketan arrazoi justifikatuengatiko hutsegiteak errekuuperatzea

Ikasle bat kexu da kanpoko praktikak egiten dituen enpresak eskatu diolako errekuuperatzea arrazoi justifikatuengatiko ez-bertaratzeak.

UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudiak, 2019ko uztailaren 12ko Gobernu Kontseiluan onartutakoak, 10.j artikuluan dio praktiketan dagoen ikasleak duela *"azterketak egiteko praktiketara ez joateko eskubidea, hiru egun lehenago tutoreari eta instruktoreari horren justifikazioa emanda. Arrazoi akademikoengatik edo beste era bateko arrazoiengatik joan ezean, ahalik eta lasterren emango die horren berri tutoreari eta instruktoreari, eta tutorearen baimena eskuratu beharko du"*. Eskubide hori jasota dago ere kanpoko praktika akademikoak egiteko erakunde laguntzailearekin sinatutako hezkuntza hitzarmena arautzen duten klausuletan.

Horren arabera, ikasleek jakinarazi eta justifikatu egin behar dituzte ez-bertaratzeak, azterketengatik direnean, arrazoi horregatik huts egiteko eskubidea dutelako; aldis, baimena eskatu behar dute beste edozein arrazoiengatik praktiketan huts egiteko.

Edonola ere, justifikatutako ez-bertaratzeak baimentzeak (bai araudi akademikoak, bai praktiketako tutoreak) ez du esan nahi *a priori* ez-bertaratze horiek errekuuperatu behar ez direnik. Aipatutako artikulua bigarren atalak zerrendatzen ditu praktiketako ikasleen betebeharrak. *"Praktiken prestakuntza proiektua ezagutzea eta betetzea"* da betebeharrak horietako bat, eta gainera, *"erakunde laguntzailean hitzartutako egunean hastea"* eta *"hezkuntza proiektuan aurreikusitako ordutegia betetzea"*. Ordutegia hitzartu behar dute ikaslearen ikastegiak eta erakunde laguntzaileak, aintzat harturik praktiken ezaugarriak eta erakunde laguntzailearen eguneroko jardura. Gainera, praktika batzuetan, ikasketetarako laguntza poltsa bat ordaintzen zaio ikasleari, eta hitzartutako jarduerak betetzera behartzen du horrek.

Aldezleak uste du kanpoko praktika akademikoen araudiarentzat bateragarria dela praktiketako saioak huts egitea eta saio horiek errekuuperatzea, eta bateragarritasun hori sortzen da prestakuntza proiektua eta erakunde laguntzailearekin hitzartutako ordutegia eta konpromisoak betetzeko betebeharratik. Zehazki, ez-bertaratzeak errekuuperatzeko exigentzia, batez ere kopuru jakin batetik aurrera, irizpide objektibo eta arrazoizko bat da, eta araudira egokitzen da. Era berean, arrazoizkoa da ere exigentzia hori erakunde laguntzailearen esku uztea, prestakuntza jarduerak antolatzen dituelako, unibertsitatearekin elkarlanean, eta erabaki dezakeelako zeintzuk diren nahitaezkoak prestakuntza proiektua osatzeko. Nolanahi ere, aldezleak gomendatzen du UPV/EHUko ikastegi batzarrek kanpoko praktikak erregulatuko dituzten barne arau orokorrak onartzea, erregulazio horren barruan sarturik ordutegiak betetzea eta ez-bertaratzeak justifikatzea eta errekuuperatzea. Horrela, ikasle guztiek izango dute arau horien berri. Ikastegi batzuen funtzionamendu arauak zehatzago jasotzen dute ez-bertaratzeen araubidea (Bilboko Hezkuntza Fakultatea, Erizaintza...).

Dekanoaren eskuordetzaz, praktiken programaren arduraduna da ikastegiko curriculum praktikak antolatzeaz, koordinatzeaz eta kudeatzeaz arduratzen den pertsona (26.3 artikulua). Rexa aurkeztu duen ikaslearen kasuan, praktiken programaren arduradunari galdetu zitzaion kanpoko praktiken barne araudiari buruz eta, zehazki, ez-

bertaratzeen erregulazioari buruz. Galderari erantzunez, jakinarazi zen ikastegiak ez duela araudi espezifikorik, eta praktikak egiten diren erakundearen esku uzten dela erabakitzea hutsegiteak errekuferatu bai ala ez, nahiz eta 10 ordutik gorakoak beti errekuferatu behar diren. Errekuferatu gabeko orduak GAUR aplikazioan zuzentzen dira, eta praktiketan laguntza poltsa bat ordaintzen bada, poltsatik deskontatzen da huts eginiko orduen zati proportzionala.

Bere espezialitatearekin bat ez datorren irakasle elkartu baten irakaslan banaketa

Irakasle batek Aldezlearen bulegoari jakinarazi zion ez zegoela ados Saileko Kontseiluak eginiko irakaslan banaketarekin. Irakasle elkartu bat zen, eta zioen, UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen artean Irakaslana Banatzeko Araudiaren arabera, ezin dela banatu irakasle elkartuei dagokien irakaslana.

Irakasle elkartuen figura arautzen da LOSUren 79. artikuluan (lehenago, LOUren 53. artikuluan). Artikulu horren a) atalaren arabera: *Las universidades podrán contratar bajo esta modalidad a especialistas y profesionales de reconocida competencia que acrediten ejercer su actividad principal fuera del ámbito académico universitario cuando existan necesidades docentes específicas relacionadas con su ámbito profesional.* b) atala: *La finalidad del contrato será desarrollar tareas docentes a través de las que aporten sus conocimientos y experiencia profesionales a la universidad, en aquellas materias en las que esta experiencia resulte relevante.* Irakasle elkartuaren figura araututa dago ere Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 23. artikuluan.

Figuraren lege konfigurazioarekin bat etorritz, UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen artean Irakaslana Banatzeko Araudiak hauxe dio: *“Era berean, irakasle elkartuei dagokien irakaskuntza ezingo da banatu irakasle-ikertzaileen gainerako kategorien artean. Salbuespen izango dira beste irakasle kategoria batzuk, baldin eta unibertsitatetik kanpo izandako jarduera baten ondorioz irakaskuntza horretan espezialistatzat hartzen badira. Antzeko jarduera duen irakasle elkartu bat baino gehiago egonez gero, 5. atalean adierazitako arau orokorreari jarraituko zaie”.*

Gure kasuan, Saileko Kontseiluak irakasleari jakinarazi zion beste irakasgai bat esleitu zitzaiola, barne berregituraketa baten ondorioz, eta denboraz jakinarazi zion hori prestatzen joan zedin. Azkenik, Saileko Kontseiluak kontratuaren xede zen irakaslana ez beste bat esleitu zion.

Irakasle elkartua denez, Irakaslana Banatzeko Araudiaren arabera, haren irakaslana ezin da banatu irakasle-ikertzaileen gainerako kategorien artean. Aldezlearen iritziz, irakasle elkartuek eskubidea dute kontratatutik diren eta espezialistak diren irakasgaietan irakasteko, eta Saileko Kontseiluak ezin die espezialistak ez diren beste irakaslanik esleitu.

Nolanahi ere, kasua are gehiago korapilatu zen: izan ere, irakasleak errekurtsioa jarri bazuen ere Saileko Kontseiluak irakaslana banatzeko hartutako erabakiaren aurka,

kontseiluaren erabakia ez zen jakinarazi 2024/2025 ikasturtea hasi arte, eta irakasleak, lehen eskola egunaren bezperan, uko egin zion Saileko Kontseiluaren aurrean irakasle elkartu gisa aritzeari. Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak onartu egin zuen irakaslearen ukoa, eta baja eman zitzaion Gizarte Segurantzari. Irailaren amaieran, UPV/EHUko Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboak arrazoia eman zion irakasleari, errekurtsua baietsi eta bere espezialitateara egokitutako irakaslan banaketarako eskubidea aitortu zion.

Aldezlearen iritziz, irakasleak uko egin zion Saileko Kontseiluaren erabaki bategatik, gero ordenamendu juridikoaren aurkakotzat joko zena. Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzordearen erabakia behar bezala betetzeko, bere espezialitatearen araberako irakaslan eman behar zitzaion irakasleari. Saileko Kontseiluaren erabakia da Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzordeak akastuntzat jo eta baliogabetzen duen egintza. Beraz, irakaslearen espezialitatearekin bat datorren banaketa egoki bat egitea dagokio, gaizki eginiko irakaslan banaketa baten ordeztu, indarrik gabe utzita Errektoreordetzak erabakitako kargu-uztea.

Amaitzeko, beste behin, eskerrak eman nahi dizkiegu, bai Aldezlearen zerbitzuan konfiantza izan duten pertsona guztiei, bai gure lana eta independentzia errespetatu dituzten unibertsitateko zerbitzu eta agintari akademikoei.

I. ERANSKINA: 2024ko aztergaien zerrenda

Gakoak

Kolektiboa	Aztergai mota
IK: Ikasleak	KE: Kexa
IRI: Irakasle-ikertzaileak	KO: Kontsulta
TEKAZEL: Administrazio eta zerbitzuetako langileak	B: Bitartekaritza
Beste batzuk: UPV/EHUtik kanpoko pertsonak	

Zk.	Kolektiboa	Aztergai mota	Gaia
1693	TEKAZEL	KE	Aldez aurreko hitzordua UPV/EHUren zerbitzu eta ikastegietan.
1694	IK	KE	Interpretazio zailtasunak prestakuntza bidean dauden ikertzaileak kontratatzeko UPV/EHUren deialdiaren oinarrietan.
1695	IRI	KE	Erantzunik ez zerbitzu informatikoen arazo batean eskainitako konponbidearen aurkako erreklamazioari.
1696	IRI	KO	Arazoak Saileko lankide batekin.
1697	IRI	KO	Saileko Zuzendaritzak unibertsitate arautegia urratzea.
1698	IRI	KE	Tutorekidetza duen doktoregai baten babesgabezia, unibertsitate arteko hitzarmen faltagatik.
1699	IK	KO	Arazoa irakasle-ikertzaile batekin: ez du betetzen master baten irakaskuntza gidako gai-zerrenda.
1700	IRI	KO	Bertaratze orduen ziurtagiria lortzeko eskubidea, gutxieneko bertaratze orduak bete ez diren ikastaro batean.
1701	TEKAZEL	KO	Gizarte Segurantzaren kotizatze eskubidea, beka zahar bat erabili bitartean.
1702	IRI	KE	Doktorego tesia egiteko lizentziaren luzapena ukatzea.
1703	IK	KO	Ebaluazio proba baten kalifikazioa erreklamatzeko aukera.
1704	IRI	KO	Alternatibak, doktorego tesiaren zuzendariarekin izandako gatazkan.
1705	IK	KO	Gizarte Segurantzaren alta emateko eskubidea, master batean curriculumetik kanpoko praktikak egiteagatik.

1706	IRI	KO	Doktorego tesia amaitzeko lizentzia luzatzeko eskubidea.
1707	IK	KO	Zalantzak gradu batean borondatzeko praktikak eskatzearen inguruan.
1708	IRI	KO	Arazoak Saileko lankide batekin.
1709	IK	KO	Ikastegiaren akats posiblea titulu bat homologatzeko behar ziren irakasgaiak ebatztean.
1710	IK	KO	Gainditutako irakasgai bat ezohiko deialdian ebaluatzeko eskubidea.
1711	IK	KO	Tutoretza bat egiteko aukera, ezarritako ordutegitik kanpo.
1712	Beste batzuk	KE	Irakaslanetan laguntzeagatiko ziurtagiria lortzeko zailtasunak.
1713	IK	KO	Irregularitasun posibleak irakasgaiak euskaraz ematean.
1714	IRI	KE	Erantzunik ez hautaketa prozesu batean espedientea eskuratzeko eskaerari.
1715	IK	KO	Gizarte Segurantzaren alta emateko eskubidea, master batean curriculumetik kanpoko praktikak egiteagatik.
1716	IRI	KO	Doktoregoen araudiak tesiak gordailutzeko ezartzen duen epetik salbuesteko aukera.
1717	TEKAZEL	KE	Malgutasunik eza IVApeko edo euskaltegietako euskara ikastaro trinkoen ordutegietan.
1718	TEKAZEL	KO	Akats bat zuzentzeko aukera LEP prozesu bateko merezimenduen alegazioan.
1719	Beste batzuk	KO	Euskara probara aurkezteko eskubidea ohiko LEP prozesu batean.
1720	IRI	KO	Informazioa eskuratzeko eskubidea, informazio horrek publikoa izan behar duela uste denean.
1721	IRI	KO	Bizikidetza arazoak graduako ikasle batekin.
1722	IRI	KO	Araudiaren interpretazioa, talde eta irakasgai bakoitzeko onartzen den ohorezko matrikulen gehieneko kopuruari buruzkoa.
1723	IK	KO	Ikasle baten egonezina ikaskideen komentarioengatik.
1724	IRI	KO	Administrazio prozedura batean eginiko eskaera bat zuzentzeko eskubidearen edukia.
1725	IK	KO	Hainbat gai, GRALaren notaren erreklamazioari, ikaslearen eskubideei eta araudien ustezko inkongruentziari buruzkoak.
1726	IRI	KO	Aztergaien zerrendan puntu bat sartzeko eta kide anitzeko organoan bozkatzeko eskubidea.

1727	IK	KO	MALa eta zuzendaria esleitzeko zailtasunak.
1728	IK	KO	GRALa matrikulatzeko aukera, matrikula epe barruan eskatu gabe.
1729	IRI	KO	Azterketan kopiatzen harrapatu den ikaslearen kalifikazioa.
1730	IK	KO	Arazoak irakasle-ikertzaile baten irakaslanarekin eta eginiko ebaluazioarekin.
1731	TEKAZEL	KO	GAURen ez agertzea sailean klaseak ematen dituen irakasle-ikertzaile bat.
1732	IRI	KO	SHEE irakasleen lehentasuna irakaskuntza esleitzean.
1733	IK	KO	Prestakuntza praktikak hasteko zailtasuna, hitzarmena berandu sinatzeagatik.
1734	Beste batzuk	KE	Ikastegiaren erantzunik eza behin eta berriro eginiko ziurtapen eskaera bati.
1735	IRI	KO	Irakasle-ikertzaileen plazetan, lehentasunezko merezimenduaren irizpidea aplikatzeko modua.
1736	IK	KO	Greba egunean irakaskuntza jasotzeko eskubidea, oso ikasle gutxi bertaratu denean.
1737	IRI	KE	Ez jasotzea mugikortasun programa baten barruan atzerrian eginiko egonaldi bati dagozkion kopuruak.
1738	IK	KE	Gradu baten curriculum praktikak gainditzeko ezintasuna, desgaitasun bateagatik.
1739	IK	KE	Beste ikasle batzuen irainak sare sozialetan.
1740	IK	KE	Doktorego aurreko kontraturako aukera galtzea, deialdian zer dokumentazio aurkeztu behar den argi ez adierazteagatik.
1741	IRI	KE	Ez sartzeko uztea ikasleek bere irakasgaiaren lortutako kalifikazioari aurkeztu dizkieten erreklamazioetara.
1742	IRI	KO	Zer egin saileko lankide batekin arazoak izanez gero.
1743	TEKAZEL	KE	Erantzunik ez TEKAZEL plazen LPZa aldatzeko eskaerari.
1744	IRI	KO	Zinpeko zaintzaileen eskubidea ikasle txartela eskatzeko greba egunean ikastegira sartzeko diren pertsonei.
1745	IK	KO	Zalantzak gradu baten hautazko kredituen aitortzearen inguruan.
1746	TEKAZEL	KE	Erantzunik ez TEKAZEL plazen LPZa aldatzeko eskaerari.
1747	Beste batzuk	KO	Unibertsitatara sartzeko probarekin zerikusia duten gaiak.

1748	IRI	KE	Irakasle-ikertzaile ez-doktoreen diskriminazioa Banakako Jarduera Planaren (JARDUN) aplikazioan.
1749	IK	KO	Praktikak gainditzeko betebeharra azterketa egin ahal izateko irakasgai baten ohiko deialdian.
1750	IK	KO	Ikasleen eskubideak irakasgai baten azterketa partzialak huts eginez gero.
1751	IRI	KO	Unibasq-en txostena eskatzea, lortutako puntuazioak jakiteko.
1752	IK	KO	Zalantzak Campuseko Batzarreko ordezkariak berritzearen inguruan.
1753	IK	KO	Doktorego aurreko kontratuaren eta lanaldi partzialeko ordezeko irakasleen kontratuaren arteko bateragarritasuna.
1754	IK	KE	Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea Medikuntzako Txandakatzean matrikulatutako ikasleen kasuan.
1755	IRI	KO	Zer egin beste campus batera joateagatiko kalte-ordainak ordaindu ezean.
1756	TEKAZEL	KO	Zalantzak TEKAZELen barne promozioako prozesuari buruz.
1757	IK	KO	Etengabeko ebaluazioan kalifikazioak erreklamatzeari buruzko araudiaren aplikazioa.
1758	IRI	KO	Euskarari merezimendu gisa eman beharreko balioa irakasle-ikertzaileen lanpostuen deialdietan.
1759	IK	KO	Azterketa irakasgaia ematen duena ez den beste irakasle-ikertzaile batek zuzentzeko aukera.
1760	IRI	KO	Araudiaren aplikazioa irakaslana banatzean.
1761	IRI	KO	Kargu akademikoen ordezkapenak irakats zereginetan.
1762	IK	KO	Istripu baten ondorioz azterketak egiteko ezintasuna.
1763	IK	KO	Arazoak practicumaren ebaluazioarekin eta praktiketako instruktore baten jokabidearekin.
1764	IRI	KO	Plaza lortu zen irakasgaia emateko eskubidea.
1765	IK	KO	Zalantzak Campuseko Batzarraren araudiaren inguruan.
1766	IK	KO	Azterketak direla-eta galdutako praktika orduak berreskuratzeko betebeharra.
1767	TEKAZEL	KE	Plaza zehatzik ez eskaintzea TEKAZELen barne promozioan.
1768	IRI	KO	Desadostasuna sailaren irakaslana banatzeko irizpideekin.

1769	Beste batzuk	KO	Zalantzak irakasle-ikertzaileen plaza baten deialdian alegazioak aurkezteko epearen inguruan.
1770	IK	KE	Eskatutako GRALa ez esleitzea, araudi berrian ezarritako baldintzak bete arren.
1771	TEKAZEL	KO	Lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren derrigortasuna AZPko lan kontratudunen hautaketa prozesu batean.
1772	IK	KE	Atsekabea irakasgai batzuen irakasleek emandako tratuarekin eta desadostasuna irakasgai horiek ebaluatzean hartutako erabakiekin.
1773	IK	KO	Azterketa atzeratzeko eskubidea ebakuntza kirurgiko baten ondoren eriondo egoteagatik.
1774	TEKAZEL	KE	Hierarkian gorago dagoenaren kontrako txostena lanpostuan betetako zereginei buruz.
1775	IRI	KO	Bizikidetza arazoak saileko kide batekin.
1776	IRI	KO	Proba mediko batzuen kostua proiektu baten finantzaketaren barruan sartzeko eskubidea.
1777	IRI	KO	Aztergaien zerrendan puntu bat sartzeko eta kide anitzeko organoan bozkatzeko eskubidea.
1778	TEKAZEL	KE	Lan gainkarga lanpostu hutsen eta bete gabeko bajen ondorioz.
1779	IK	KO	UPV/EHUren betebeharra Gizarte Segurantzaren kotizatzearen gradu baten kanpoko praktikak egiteagatik.
1780	IK	KO	Ikasten jarraitzeko laguntza psikologikoko baliabideak familia barruko tratu txar kasu batean.
1781	IK	KO	Zalantzak ikasleen ordezkariak hautatzeko araudiaren inguruan.
1782	IK	KE	Epeak ez betetzea eta datu pertsonalen babesa urratzea ikasleen kalifikazioak argitaratzean.
1783	Beste batzuk	KO	Irakasle-ikertzaileen lan poltsa batean sartzeko eskubidea, aurkeztutako titulazioaren ondorioz.
1784	IRI	KO	Desadostasunak saileko zuzendaritzarekin, irakasgai baten irakaslana eta koordinazioa dela-eta.
1785	IRI	KE	Iruzurraren aurkako Batzordearen ebazpen baten aurkako kexa.
1786	IRI	KE	Ikasle baten portaera desegokia irakaslearekin.
1787	IRI	KO	Lanaldi partzialeko irakasle-ikertzaileen mugak ikerketa lanerako.
1788	IK	KE	Euskarazko eskaintza urria Esperientzia Geletan.
1789	TEKAZEL	KO	Lizentziak, baimenak eta oporrak tramitatzeari buruzko hainbat gai.

1790	IRI	KO	Tratu bidegabea eta arbitrarioa ekitaldi akademiko baten antolakuntzan.
1791	IK	KO	Sailean irakasgai baten kalifikazioa erreklamatzeko prozedura.
1792	IK	KO	Zalantzak ebaluazio araudiaren aplikazioaren inguruan.
1793	IK	KE	Kanpoko praktikak ez aitortzea, praktikak ez bukatzeagatik.
1794	Beste batzuk	KO	Tesiaren zuzendaria aldatzeko zailtasunak.
1795	IRI	KO	Alegazioetarako epea luzatzeko aukera, informatika aplikaziora sartzeko arazoengatik.
1796	IK	KO	Ikerketa deialdi batean onartua izateko eskubidea, dokumentazioa epez kanpo bidali denean informatika aplikaziora sartzeko arazoengatik.
1797	IRI	KE	Erantzunik ez desgaitasun bat dela-eta irakaskuntza gaitasuna egokitzeko eskaerari.
1798	Beste batzuk	KO	Kontratazio berria egiteko epea, aurretik egindako adjudikazioaren inpugnazioa onartu ondoren.
1799	IK	KO	Onarpen nota zaharrarekin gradu batean sartzeko aukerei buruzko informazio okerra.
1800	IK	KO	Arazoak helmugako unibertsitatearen akordio akademikoaren sinadurarekin.
1801	IRI	KO	Zalantzak irakasle-ikertzaileen plaza baten deialdian izandako gorabeheren inguruan.
1802	IRI	KO	Arazoak saileko lankideekin.
1803	IRI	KO	Alternatibak, jarduera praktikoen jarraipena eta ebaluazioa egiteko ikastegiak onartutako irizpideekiko desadostasuna dela-eta.
1804	IK	KO	Ebaluazio proben erantzun zuzenak argitaratzeko betebeharra.
1805	IK	KE	Unibertsitate masterraren titulua eskatzeko ezintasuna, arazo informatikoengatik.
1806	TEKAZEL	KO	Zalantzak UPV/EHUren Arbitraje Batzordearen inguruan.
1807	Beste batzuk	KO	Doktorego tesitik sortutako jabetza intelektualeko eskubideak.
1808	IK	KO	Arazoak irakasle-ikertzaile baten irakaslanarekin.
1809	IRI	KO	Administrazio isiltasunaren esanahia gora jotzeko errekurso batek erantzunik ez jasotzean.

1810	IRI	KE	Desadostasuna unibertsitateak prozedura judizial batean egindakoarekin.
1811	Beste batzuk	KO	Web aplikazio baten funtzionamendu okerra.
1812	IRI	KE	UPV/EHUren iragarki taulak edozein ordutan bidaltzea mezuak, egunez nahiz gauez, baita asteburu eta jaiegunetan ere.
1813	IRI	KO	Dagozkionak baino irakats kreditu gehiago emateko betebeharra.
1814	IRI	KO	Irakasle lanpostu baten deialdian ezarritako baremazio irizpideen legezkotasuna.
1815	IK	KE	Irakasle-ikertzaile baten portaera sare sozialetan, UPV/EHUren kode etikoaren aurkakoa.
1816	IRI	KO	Atzeratutako oporrak hartzeko eskubidea.
1817	TEKAZEL	KO	Zalantzak LEP deialdiaren oinarrien inguruan.
1818	IK	KO	Matrikula baliogabetzeko eta ordaindutakoa itzultzeko eskatzeko aukera.
1819	IRI	KO	Zailtasunak ikerketa proiektu batean izandako parte hartzearen aitortpena lortzeko.
1820	IRI	KO	Irakasle-ikertzaileen lanpostuak eskatzeko sailak ezarritako irizpideak egokitzea.
1821	TEKAZEL	KO	LEP prozesu batean argitaratutako azken kalifikazioan akatsa ofizioz zuzentzeko betebeharra.
1822	IRI	KO	Azterketa baten data aldatzeko eskaera, bere campusean jaieguna izateagatik.
1823	IRI	KO	Ordena publikoko gertakaria UPV/EHUren ikastegi batean emandako hitzaldi batean.
1824	Beste batzuk	KO	Informazioa gradu baten lehen mailan matrikulatutako pertsona kopuruari eta onarpen notari buruz.
1825	IK	KE	GRALaren matrikula eta defentsa egiteko ezintasuna, kanpoko egonaldi batean lortutako kalifikazioak garaiz ez iristeagatik.
1826	IRI	KO	Zalantzak GRAL epaimahaien osaeraren inguruan.
1827	IRI	KO	Argibideak irakasle-ikertzaileen arteko harreman profesional egokitze hartzen denari buruz.
1828	Beste batzuk	KO	Espedientea lekuz aldatzeko eskaera, atzerriko unibertsitate batean sexu erasoa pairatzeagatik.

1829	IK	KO	Alternatibak, ebakuntza kirurgikoa dela-eta denbora luzez ikasketetatik urrundu behar izatean.
1830	IRI	KE	Ekipo mugikor pertsonalean kanpoko softwarea instalatzeko betebeharra.
1831	IRI	KE	Eginiko irakaslanari buruzko txostena lortzeko ezintasuna.
1832	TEKAZEL	KE	Desadostasuna LEP batean eskainitako plazekin.
1833	IRI	KE	Datu pertsonalak babesteko eskubidea urratzea.
1834	TEKAZEL	KE	Erantzunik ez bere plazaren lanpostuen zerrenda aldatzeko eskaerari.
1835	IRI	KE	Desadostasuna saileko zuzendaritzaren jokabidearekin.
1836	IRI	KO	Eskolak bertan behera uzteko eskubidea, hauteskunde kanpainagatik.
1837	IK	KO	GRALaren ebaluazio datak aurreratzeko eskubidea.
1838	IK	KO	Ikasleen Kontseiluaren Barne Funtzionamenduaren Araudia aldatzeko aukera.
1839	IRI	KO	Irakaskuntzaren eta jarduera pribatuaren bateragarritasuna.
1840	IRI	KO	Ikasle baten jokabide desegokia irakasle-ikertzaile batekin.
1841	IK	KE	Berezko titulu baten lan irteerei buruzko informazio desegokia.
1842	IK	KO	Irakaslana baloratzea Adimen Artifizialeko tresnekin.
1843	TEKAZEL	KO	Arazoak irakasle-ikertzaile batekin, ikastegiko gelen erabilera dela-eta.
1844	IRI	KO	Sailaren gaitasuna kanpoko finantzaketa duten ikertzaileen plazak betetzeko baldintzak ezartzeko.
1845	IK	KO	Azterketa partzial baten kopia lortzeko eskubidea.
1846	IRI	KE	Irregularitasunak hauteskunde kanpainan.
1847	IRI	KO	Lan esperientzia kontuan hartzeko eskubidea, irakasle laguntzaile doktore izateko lehentasunezko merezimendu gisa.
1848	IRI	KO	Zer egin saileko lankideen artean arazoak izanez gero.
1849	TEKAZEL	KO	Alegazioei erantzuteko betebeharra administrazio prozedura batean.
1850	TEKAZEL	KE	Bizikidetza arazoak saileko irakasle-ikertzaile batekin.
1851	IRI	KE	Atzerriko egonaldi baten aitortzea lortzeko zailtasunak.

1852	IK	KE	Irregularitasunak UPV/EHUren Hauteskunde Batzorde Nagusian.
1853	Beste batzuk	KE	Ez betetzea gaizki eginiko irakaslan banaketa baliogabetzen duen erabakia.
1854	IK	KE	Hizkuntza ziurtagiria entregatzeko epea luzatzeko eskaria, mugikortasun programa batean.
1855	IRI	KO	Irakaslana banatzea unibertsitate master ofizial batean.